

*Zaldibiako emakumeen
eta gizonen egoeraren
berdintasun diagnostikoa.*



Farapi



evident:is

Farapi S.L.
grupo Evidentis

*Zaldibiako emakumeen
eta gizonen egoeraren
berdintasun diagnostikoa.*



Farapi



evident:is

Farapi S.L.
grupo Evidentis

AURKIBIDEA

1. ABIAPUNTUA	6
2. SARRERA	8
3. METODOLOGIA	10
3.1. Iturri dokumentalak	11
3.2. Landa lana	11
3.2.1. Sakoneko elkarrizketak	11
3.2.2. Analisia	13
3.3. Diagnostikoaren egitura	13
4. BIZTANLERIA	14
4.1. Populaketaren garapena	15
4.2. Biztanleria sexuaren arabera	15
4.3. Migrazio mugimenduak	18
4.4. Emakume atzerritarrak	20
5. LANA	21
5.1. Produkzioa lana	23
5.1.1. Langabezia	23
5.1.2. Lan Sektorea	24
5.1.3. Gizarte Segurantza	26
5.1.3.1. Altak	26
5.1.3.2. Ezkutuko Ekonomia	27
5.1.4. Lan baldintzak	28
5.1.4.1. Kontratu -motak	28
5.1.4.2. Lanaldi motak	29
5.1.4.3. Bereizkeria bertikala	29
5.2. Lan erreproduktiboak	30
5.3. Udal ardurak	32
5.3.1. Produkzio lana	32
5.3.2. Erreproduzio lana	32

6. HEZKUNTZA	36	8.6. Kirol saileko langileak eta ardurak	69
6.1. Errekurtsoak	37	8.7. Kirol jarduerak eta baliabideen erabiltzaileak	69
6.2. Berdintasuna bultzatzen duten programak	38	8.7.1. Haurrentzako kirol eskaintza	69
6.3. Laburbilduz	39	8.7.2. Helduentzako kirol eskaintza (udaletik antolatutako jarduerak)	70
7. ONGIZATEA	42	8.7.3. Helduentzako kirol eskaintza (kirol elkarteetatik bideratutako jarduerak)	71
7.1. Udala	43	8.8. Laburbilduz	72
7.1.1. Gizarte Zerbitzuen deskribapen orokorra	43	9. HIRIGINTZA	74
7.1.2. Langileria datuak	43	9.1. Hirigintzako ardurak, arduradunak eta genero ikuspegia	75
7.2. Pertsonen eta familien probezia eta babes gabezia maila	44	9.2. Zaldibia eta irisgarritasuna	77
7.2.1. Pobrezia	44	9.3. Zaldibia eta zerbitzuak	77
7.2.1.1. Diru laguntzak	46	9.4. Zaldibia eta mugikortasuna	78
7.2.2. Babes gabezia	46	9.4.1. Autobus zerbitzuak	78
7.2.3. Gizarte zerbitzuetako onuradunak eta hizketakideak	49	9.5. Zaldibia eta segurtasuna	79
7.3. Emakumeen aurkako genero indarkeria	50	9.6. Zaldibia eta adierazpide sinbolikoa	79
7.3.1. Indarkeria zifratuak	50	9.7. Laburbilduz	80
7.3.2. Emakumeen aurkako genero indarkeria eta Gizarte Zerbitzuak	51	10. PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA	82
7.4. Laburbilduz	52	10.1. Partaidetza	83
8. KULTURA ETA KIROLA	56	10.1.1. Udal antolamendua: Korporazioa eta udal batzordak	83
8.1. Kultur baliabideak	57	10.1.2. Udal antolamendua: udal langileak	85
8.2. Kultura saileko langileak eta ardurak	57	10.2. Partaidetza sozio-kulturala: elkarteak	86
8.3. Kultur baliabideen erabiltzaileak	58	10.2.1. Elkarteak eta generoa	87
8.3.1. Liburutegia	59	10.3. Laburbilduz	89
8.3.2. Haurren jolas gela	59	11. ONDORIOZ	92
8.3.3. Gazte txokoa	59	11.1. Mainstreaming eta gobernantza	93
8.3.4. Haurrentzako urte osoko jarduerak	60	11.2. Emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea	93
8.3.5. Helduentzako Urte osoko ikastaroak	60	11.3. Antolaketa sozial erantzukidea	94
8.3.6. Jarduera konkretuak	60	11.4. Emakumeen aurkako indarkeria	94
8.3.7. Kultur ekintzak eta bateragarritasuna	62	12. TAULEN AURKIBIDEA	96
8.4. Festak	63		
8.4.1. Zaldibiako festak edo/eta egun bereziak	63		
8.5. Kirol baliabideak	68		

ABIAPUNTUA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz ari garenean, bi helburu nagusi izan behar ditugu gogoan: batetik, batzuek eta besteek aukera berak izan ditzaten eta haiekiko jokabidea parekidea izan dadin bermatzea; bestetik, generoa dela eta sortu edo garatzen den bazterketa eta indarkeria mota oro ezabatzea.

Berdintasuna lortzeko egin beharreko bidea aspaldi izan du hizpide hainbat belaunaldik. Ezinbestekoa da errealitatea zein den ezagutzea eta, hori lortzeko, abiapuntu egokian kokatu behar gara. Hori helburu hartuta abiapuntua definitu nahi izan dugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostikoarekin, gaur egun, Zaldibian genero ikuspegiari dagokionez daukagun argazkia izatea alegia. Diagnostiko horrek emango dizkigu, gartu beharreko politika feminista definitzeko, planifikatzeko, aurrera eramateko eta ebaluatzeko gakoak, hain zuzen, lehen aipatutako helburuak eskuratzeko ezinbestekoak direnak.

Zaldibiako Udalak berdintasunaren eta parekidetasunaren alde irmotasunez lan egiteko asmoa du. Bide horretan, zaldibitar guztien parte hartzea beharrezkoa da. Hori dela eta, diagnosia burutzeko garaian ahalik eta herriko talde gehienen parte hartzea lortu nahi izan dugu. Abiapuntua jarriagatik norbanako eta talde guztien ekarpenik gabe antzua izan daiteke egin nahi dugun bidea.

Diagnosi horren jarraipena ez da lan talde konkretu baten ardura izango. Zeregin hori gune eta gai guztietan landuko da, zuzenean zein zeharka, Zaldibiako Udalean eta herrian. Txosten hau bide honi ekiteko lehen urratsa baino ez da, ekin diezaiogun bideari.

Zaldibiko Udala

SARRERA

Jarraian aurkezten den txostenean Zaldibiako Emakume eta Gizonen egoeraren diagnostikoaren emaitzak aurkezten dira. Otsailaren 18ko 4/2005 legearen, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunaren aldeko legearen, onarpena (EHAA 02/03/05) kualitatiboki oso pauso garrantzitsua izan da berdintasun politikak bultzatzeko bidean. Legeak, kudeaketa tresnen definizio eta sistematizazioa eginez, berdintasun planak eta diagnostikoak egiteko egitura orokor bat zehatzen du.

Zentzu honetan, oinarrizkoa izan da, baita ere, Emakundek legearen edukia bere V. Planarekin uztartzea. Legearen eta planaren uztartze honi esker, diagnostiko eta planek egitura komun bati erantzuten diete, honela jarraipena eta ebaluazioa egitea erraztuz.

Zaldibiaren kasuan, Udaletik berdintasunaren inguruan hainbat ekimen solte egin diren arren (hezkidetza ikastaroa begiraleentzat, azaroaren 25a ospatzea etab.) diagnostiko hau da Udaletik Berdintasun politikak sistematiko lantzeko ematen duten lehen pausoa. Pauso honen ostean, diagnostikoaren ondorioak abiapuntu gisa hartuz, ibilbide honi jarraipena ematea espero da Udaletik.

Zaldibiako gizon eta emakumeen egoeraren azterketaren *helburu orokorra herriko gizon eta emakumeen errealitatearen ezagutza sakona lortzea*

da, beraien arazoak identifikatzea, hauei aurre egiteko abiatu diren estrategiak ebaluatzea eta gizon-emakumeen berdintasunean aurrera egiteko oinarrizkoak diren esku-hartze eremuak definitzea.

Helburu orokor hau lortzeko ezinbestekoa da jarraian aipatzen diren **helburu zehatzak** kontuan izatea:

- Oinarrizko eskubideetan (parte hartze soziopolitikoak, erabakitze eskubidea, etab.) gizon-emakumeen artean dauden ezberdintasunak identifikatzea eta aztertzea.
- Udal baliabide eta zerbitzuen erabilpenean, diru-laguntzak, azpiegitura publikoak (kultur-etxea, liburutegia, kirol instalakuntzak, etab.), garraio publikoa, etab. gizon-emakumeen artean dauden ezberdintasunak zehaztea eta oinarrian dauden arrazoietan sakontzea.
- Lanean eta esparru ekonomikoan, diru-sarrerak sortu eta kudeatzeko, dauden ezberdintasunak identifikatzea eta hauen inguruan hausnartzea.
- Etxeko lanen banaketan, aisialdirako denboraren erabilpenean, zaintza lanetan, eta abarretan dauden ezberdintasunak analizatzea.
- Formakuntza, informazioa, etab., eskuratzerako orduan dauden ezberdintasunak topatu eta aztertzea.

Bestalde, diagnostikoaren beste helburu bat prozesuan zehar udal ardura-dun, teknikari, eta herriko beste hainbat eragile sentsibilizatzea da.

METODOLOGIA

Azterketa hau egiteko ikerketa teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabili dira. Lanak oinarritzko bi fase izan ditu. Lehen fasean iturri dokumentalak aztertu dira (datu kuantitatiboak, Udaleko memoriak, informeak eta abar.), bigarren fasean, informazioa kualitatiboa bildu asmoz, landa lana egin da.

Azterketa kualitatiboak dokumentazio lanari esker lortutakoa osatu eta sakontzeko aukera ematen du, bestela nekez kuantifikatu litezkeen alderdiei buruzko informazioa jasoz: sentsibilizazio, inplikazio, asetasun edo kontzientziazio maila, esate baterako.

3.1. ITURRI DOKUMENTALAK

Diagnostikoan ikusi ahal izango den moduan, erakunde ezberdinetako datu estatistikoak kontsultatu dira, besteak beste:

- Udal Errolda
- Eustat
- Estatistikako Institutu Nazionala (EIN-INE)
- Gizarte Segurantza

Bestalde, Udaleko sail ezberdinetako barne memoria, datu, programa eta informeak ere kontsultatu dira. Ondorengo taulan laburtzen dira:

SAILA	MEMORIAK
Kultura	Liburutegiko erabiltzaile datuak
	Kultur ekintzetako partehartzaile datuak
	Kultur ekintzetako begiralei buruzko datuak
	Udako eskola-kirola sustatzeko kanpainako datuak
	Santa Fe jaietako programak eta kartelak
Ongintza	Ez gaitasun datuak
	3. adinekoen inguruko datuak
	BVD
	Genero indarkeriaren inguruko datuak
	Langileriaren datuak

Taula 1: Kontsultatutako barne dokumentazioa. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.

3.2. LANDA LANA

Landa lanaren bitartez lortu da iturri dokumentalen azterketatik jasotakoa osatzeko, kontrastatzeko eta sakontzeko informazio kualitatiboa.

3.2.1. Sakoneko Elkarrizketak

Guztira 5 elkarrizketa egin dira. Berriemaileak aukeratzeko garaian oinarrizko irizpidea izan da diagnostikoan lantzen diren alor ezberdinekin harremandutako jendea izatea, honela, erreferentziazko pertsona hauek alor bakoitzeko egoeraren inguruko gogoetak egin dituzte, hauetan genero ikuspegia lantzeko dauden bideak eta oztopoak aztertuz.

Ongintza	Gizarte Langilea
Osasuna	Herriko Medikua
Hezkuntza	Herri Eskola
Kirola eta Kultura	Kultur teknikaria
Hirigintza eta mugikortasuna	Udal Arkitektoa

Taula 2: Elkarrizketatuen zerrenda. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.

Banakako elkarrizketez gain bi eztabaida talde egin dira, bata udal ordezkariekin eta bestea herriko hainbat elkarteetako ordezkariarekin.

Eñaut Hernandez (BILDU)	Alkateordea, Hirigintza eta Partehartzeko zinegotzia.
Jon Mikel Ruano (BILDU)	Zerbitzu, Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko zinegotzia
Mari Karmen Iraztorza (BILDU)	Zerbitzu, Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko Batzordea
Ibai Azurmendi (BILDU)	Kultura, Gazteria eta Kiroletako Zinegotzia
Xabier Irastorza	Ingurumena, Mendi eta Lehen sektorearen batzordekidea
Edurne Soraluze	Gobernu taldearen aholkularia
Mikel Luloaga	Gobernu taldearen aholkularia

Taula 3: Udal ordezkariekin bilera. Iturria: Farapi S.L. Egilea: Farapi S.L.

Bilduko Joxan Etxabe alkateak eta Iñaki Golmaiok ezin etorria adierazi zuten. Baita Zaldibia Herrigintzaneko Aitor Olano eta Garbiñe Mendizabalek.

Zaldibiko Aretotako Futbol Taldea	Ordezkaritza bat (gizon bat)
Ardiki Kultur Elkarteak	Ordezkaritza bat (gizon bat)
Ezker Abertzalea	Ordezkaritza bat (gizon bat)
Damixelak	Ordezkaritza bat (Emakume bat)
Gaztetxea	Lau ordezkari (4 emakume)
Beti Gazte Elkarteak	9 ordezkari (8 emakume eta gizon bat)
Gailurrerantz Mendi Elkarteak	Bi ordezkari (bi mutil)
Guraso Elkarteak	Ordezkaritza bat (emakume bat)

Taula 4: Elkarteetako ordezkariekin lan bilera. Iturria: Farapi S.L. Egilea: Farapi S.L.

Elkarteetako ordezkariekin egindako bilerara goiko taulan aipatzen diren elkarteak etorri baziren ere, deialdia herriko elkarte guztiei egin zitzaian. Ondorengo zerrendan daude gonbidatutako elkarte edo talde guztiak:

- Txirrindulari taldea
- Pilota Eskola
- Ttiriki-ttarraka Ekimena
- Zaldibiako Musika Eskola
- Iztueta Dantza Taldea
- Goiztiri Txaranga
- Zaldibia Aralar Pottoka elkarteak
- Almitza Segak Elkarteak
- Parroki Elkarteak
- Ehiza eta Arrantza Elkarteak
- Zubi-buru elkarteak
- Gaztelu Elkarteak
- Iztueta Fundazioa
- Odol Emaileen elkarteak

- Goierriko Sahararen Lagunak Algamar Elkartea
- Zape Pottoka Elkartearen
- Zas Zaldibiako Ahuntz Saia Elkartea.
- Zaldibia Herrigintzan
- Zaldibiako Aralar

3.2.2. Analisia

Elkarrizketa guztiak entzun ondoren berriemaileek esandakoen artean esanguratsuenak berreskuratu dira hitzez-hitzezko aipamenen bitartez. Datu Pertsonalak Babesteko Legea¹ dela eta ez dira berriemaileen izenak emango.

3.3. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA

Sarreran aipatu den moduan, diagnostiko egin eta egituratzeko Emakunde-ko EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Planean zehaztutako arloak izan dira oinarri, arreta berezia eskainiz Irurako Udalak esku-
men zuzena duen arloei. Irizpide hauek jarraituz, diagnostikoak ondorengo atalak ditu:

- Biztanleria
- Lana
- Hezkuntza
- Ongizatea
- Kultura eta Kirola
- Hirigintza
- Partaidetza sozio-politikoa

Diagnostikoaren barne egitura komuna da atal guztietan. Datu estatistiko, dokumental eta kualitatiboak erabiliz arlo bakoitzaren deskribapen orokorra egin da. Ondoren, udalak dituen ardurak eta genero ikuspegia txertatzeko dituen bideak eta oztopoak jaso dira.

¹ Abenduraren 13ko, 15/1999 Lege Organikoa.

BIZTANLERIA

Hurrengo lerroetan herriko biztanleriaz hitz egingo dugu, nolako aldaketak egon diren, ze faktore errepikatzen dira... baina batez ere gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunetaz hitz egingo dugu. Egia da herri txikiak direnean datuak, datei dagokionez, heterogeneoagoak direla, baina kasu haueetan datuek herriaren nondik-norakoak ulertzeko balio dute.

4.1. POPULAKETAREN GARAPENA

Atal honen helburua Zaldibiako biztanleriaren inguruko datuak aurkeztu eta hauen gaineko gogoeta egitea da. Atal hau osatzeko urte ezberdinetako datuak erabiliko dira, ahal izan denean daturik berrienak, 2011koak², erabili dira, besteetan datu zaharragoekin osatu da Zaldibiako biztanleriaren deskribapena.

Hurrengo taulan Zaldibiako populaketaren garapen historikoa ikus liteke sexuaren aldagaitik abiatuta. 2000. urtetik 2011ra ez da aldaketa nabarmenik eman biztanleriaren kopuruan, ez eta gizon eta emakumeen kopuruan ere.

Urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2011	723	764	1517
2005	711	766	1477
2000	789	736	1525

Taula 5: Zaldibia populaketaren garapen historikoa sexuaren arabera 2000, 2005 eta 2011. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

4.2. BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA

Atal honetan Zaldibiako biztanleriaren nondik norakoak eta aldagai sozio-demografikoetan eragina izan dezaketak aztertuko dira. Datuak Zaldibiako Udal Erroldatik eskuratu dira eta biztanleri orokorrari dagokionez datuak 2011ko Urtarrilaren 1eko datuak dira.

Udal Erroldaren arabera, egun 1.517 biztanle ditu Zaldibiak, horietatik 723 emakumezkoak eta 764 gizona, ez da bereziki aipagarria emakumezko eta gizonen arteko aldea, hala ere, aipatu behar da, egun 41 gizon gehiago daudela erroldatuak Zaldibian.

Urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2011	723	764	1517

Taula 6: Zaldibiako biztanleria sexuaren arabera 2011. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.


² Udaleko administrariak argitu duenez, 2011ko datuak behin-behinekoak dira oraindik, EInenkin kontraste lanetan dabilta eta 2012ko martxorarte ez dituzte behin betiko datuak izango.

Datuak ehunekotara pasatzen badira, gizonezkoak biztanleriaren %54a dira eta emakumezkoak %46.



Grafikoa 1: Zaldibiako biztanleria sexuaren arabera, 2011. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Jarraian 2010eko Zaldibiako adin-piramidea aurkezten da. Ikus liteke Zaldibian piramideak oinarri estua duela. Erdialdean zabaldu egiten dela goialdean berriz estutzeko. Beraz, nabarmendu liteke, piramide honek biztanleriaren zaharkitzea islatzen duela.



Grafikoa 2: Zaldibiako biztanleriaren piramidea 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

2010eko datuetatik nabarmendu litekeena da, 2011koekin alderatuz, emakumezkoen kopurua (802) handiagoa zela urte horretan gizonezkoena baino (702).

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
0-44	12	86	9
5-92	62	95	5
10-14	34	34	68
15-19	28	36	64
20-24	46	26	72
25-29	58	44	102
30-34	69	63	132
35-39	56	36	92
40-44	70	49	119
45-49	61	53	114
50-54	59	59	118
55-59	60	44	104
60-64	46	45	91
65-69	43	37	80
70-74	44	23	67
75-79	30	23	53
80-84	20	32	52
85 y más	11	41	52
GUZTIRA	802	702	1504

Biztanleria piramidetik ezinbestean berreskuratu beharreko datu bat hirugarren adinekoena da. Datuak kontsultatuz ikusten da emakumeen eta gizonen kopurua nahiko parekoa dela adin tarte guztietan, baina adinean aurrera joan ahala emakumezkoak gehiago dira gizonezkoekin alderatuz, batez ere 60 urtetik aurrera.

Taula 7: Zaldibiako Biztanleriaren piramide 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda.
Egilea: Farapi S.L.

4.3. MIGRAZIO MUGIMENDUAK

Atal hau osatzeko 2010 eta 2011ko datuak erabiliko dira, azken hauek ora-indik behin-behinekoak direla gogoratu behar da.

Udal erroldan jasotako datuen arabera, 2010ean atzerrian jaiotako 133 pertsona zeuden erroldatuak Zaldibian. Hauetariko 83 Europar Batasuneko herrialdeetatik etorriak eta beste 50 Europar Batasunetik kanpokoak.


	Zenbatekoa
Europar Batasunean jaiotakoak	82
Europar Batasunetik kanpo jaiotakoak	50
GUZTIRA	132

Taula 8: Atzerrian jaiotako pertsonak, Zaldibian erroldatuak, 2010.
Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.



Grafikoa 3: Atzerrian jaiotako pertsonak, Zaldibian erroldatuak %, 2010.
Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

132 horietatik, gehiengoa gizonetzkoak dira, %64, emakumezkoak aldiz, %36 osatzen dute.



Grafikoa 4: Zaldibian erroldatutako atzerrian jaiotako emakumezko eta gizonetzkoen portzentaiak. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Jatorriari erreparatzen bazaio, ikus liteke, emakumeak gutxiago izan arren, jatorria kontutan izanda hauen arteko aniztasuna handiagoa dela. Jarraian datorren taulan ikus litekeenez, 13 jatorri ezberdin daude.

	Emakumeak	Gizonak	
Alemania	1	4	
Francia	2	2	
Portugal	6	12	
España	0	0	
Reino Unido	0	2	
Rumania	13	37	
Argelia	1	2	
Marruecos	9	14	
Bolivia	3	2	
Cuba	2	0	
Chile	2	2	
Ecuador	4	5	
Rep.Dominicana	2	3	
Venezuela	1	0	
China	1	0	
Guztira	47	85	132


Taula 9: Zaldibian erroldatutako atzerrian jaiotako gizon-emakumeak jaioterriaren arabera. Zaldibia 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda, 2010. Egilea: Farapi S.L.

Bestalde, 2010eko errolda datuen arabera, Zaldibiako herritarren 8,8%a atzerrian jaiotakoa da. Datu hau, EAEko datuekin alderatzen bada, Zaldibiako kopurua altuagoa da. Euskal Autonomi Erkidegoan %6,6a da atzerri-tan jaiotakoa³.

Atzerrian jaiotakoak	132
Zaldibian jaiotakoak	1369

Taula 10: Zaldibiako inmigrazioa bertako populaketaren arabera, 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Esan bezala, 132 atzerritar zeuden Zaldibian 2010an, hau da populaketaren %8,8a hurrengo grafikoan ikusten den bezala, bertako populaketak aldiz, %91,2a suposatzen du. Beraz, nahiz eta EAEko datuekin konparatu Zaldibiako portzentaia altuagoa izan, oraindik ere bertako eta atzerriko popu-laketaren arteko aldea oso handia da.



Grafikoa 5: Zaldibiako inmigrazioa bertako populaketaren arabera, 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Euskal Herri barneko migraketa mugimenduei dagokienez, 2010. urtean, Euskal Herriko beste toki batzuetatik etorritako 30 lagun erroldatu ziren Zaldibian, 16 emakume eta 14 gizon.

2011ko datuak ikusiz, egoera dezente aldatu dela ikus liteke. Udal erroldan jasotakoaren arabera (behin-behineko datuak). 2011an 42 lagun zeuden atzerrian jaio eta Zaldibian erroldatuak. Hauetatik 24 pertsona (10 emakume eta 14 gizon) Euskal Herriko beste herri batzuetatik etorriak. 6 lagun Kataluniatik etorriak, 4 Espainiatik eta beste 8 Errumaniatik (3 emakume eta 5 gizon). Datu hauen arabera, kanpotik etorritakoen artean gizonezkoak dira gehiengo (23 gizon eta 19 emakume guztira).

JATORRIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Euskal Herria	10	14	24
Katalunia	-	-	6
Espainia	-	-	4
Europar Batasuna (Errumania)	3	5	8
Guztira	19	23	42

Taula 11: Kanpoan jaiotakoa, Zaldibin Erroldatuak, 2011. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Euskal Herriko gainontzeko herrietatik eta Espainiatik etorritakoen datuak 1981etik jasotzen dira Zaldibian. 1981-2012 denbora tartean 150 lagun erroldatu dira Zaldibian. Hauetatik 144 Euskal Herriko etorriak (75 emakume eta 79 gizon) eta 6 Espainiatik etorriak (4 gizon eta 2 emakume). Euskal herriko etorritakoen artean 133 dira Euskal Herrian bertan jaiotakoak eta 11 Espainian jaio, Euskal herriko beste herri batean bizi izan eta azkenean Zaldibian erroldatu direnak.


³ www.ikuspegi.org

4.4. EMAKUME ATZERRITARRAK

Atal hau osatzeko 2010ko datuak erabili dira.
Atzerrian jaiotako emakumeei dagokienez, gehiengoa (%56,2a) Europar Batasunetik kanpo jaiotakoa da.


ATZERRIAN JAIOTAKO EMAKUMEAK	
Europar Batasunekoak ez diren emakumeak	Europar Batasuneko emakumeak
21	27

Taula 12: Atzerrian jaiotako emakumeak; Zaldibian erroldatuak 2010.



Grafikoa 6: Zaldibin bizi diren kanpoan jaiotako emakumeak jatorriaren arabera, 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Herrialdeka, Marokok, Ekuadorrek eta Boliviak (ordena horretan) osatzen dute kopururik esanguratsuena. Europar Batasuneko emakumeen artean aldiz, Errumania, Portugal, eta Frantzia dira kopuru altuenak dituztenak.




Grafikoa 7: Kanpoan jaiotako emakumeak jaiotze lekuaren arabera, 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Zaldibiako emakumeekin konparatuz, atzerrian jaiotako emakumeen kopurua %6,9koa da. Bestalde, Gipuzkoa mailan dauden emakume atzerriarren kopurua %6,1⁴a da. Beraz, datuak alderatuz, Zaldibiako portzentaia Gipuzkoa mailakoa baino altuagoa da.

⁴ Datu honen kalkulua Farapi S.L.ek egin du. Erroldako datuak eta Ikuspegiko datuek gurutzatuz.


EMAKUME JAIOTZA TOKIAREN ARABERA	
Kanpoan jaiotakoak	47
Zaldibian jaiotakoak	654
GUZTIRA	701

Taula 13: Kanpoan jaiotako emakumeak eta Zaldibian jaiotakoak, 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.



Grafikoa 8: Emakumeak jaiotza herriaren arabera, 2010. Iturria: Zaldibiako Udal Errolda. Egilea: Farapi S.L.

Amaitzeko, Ikuspegiren datuen arabera, Zaldibiako emakume atzeritarren adin piramidea honako hau zen 2010ean. Datu hauen arabera emakumeen adin tarte 0-4tik 50-54 artekoa da, gehiengoa helduaroko tartean kokatuz (20-24/30-34).



Grafikoa 9: Kanpoan jaiotako emakumeen adin piramidea, 2010. Iturria: Ikuspegi. Egilea: Farapi S.L.

LANA

Lanaren esparruan emakume eta gizonek bizi duten egoeraren azterketa funtsezkoa da berdintasun diagnostiko batean. Lana, Emakundeko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean aipatzen den moduan, oinarrizkoa elementua da pertsonen gizarteratzea eta autonomia ekonomikoa bermatzeko. Jarraian aipatuko diren datu guztiek agerian utziko duten moduan, lanarena da emakumezkoen eta gizonezkoen artean alde handienetakoa duen esparrua.

Lanaz hitz egiterakoan, lana bere zentzurik zabalenean ulertu behar da, hau da, produkzio-lana eta ugalketa naiz bizitzari eusteko lana izan behar dira kontutan. Horregatik atal honek banaketa hori jarraituko du, alde batetik, produkzio lanari buruzko datu eta informazioak emango dira, eta bestetik, lan erreproduktiboei buruzkoak. Azpi-atal bakoitzean beste hainbat alderdi ere aztertuko dira (langabezia datuak, kontratu motak, lan baldintzak, lan erreproduktiboen banaketa, bizitza pertsonal eta profesionalaren bateragarritasuna, eta abar.).

5.1. PRODUKZIOA LANA

Etengabe handitzen joan da emakumeen parte hartzea lan merkatuan. Errealitate hau agerian uzten du Emakundek argitaratutako *Desigualdad en la trayectoria y situación profesional de las mujeres en la CAE. Coste relativo de la pérdida de talento femenino* informeak⁵, hain zuzen ere, 1985etik 2007era emakume lagileen portzentaia %28 izatetik %42,1 izatera pasatu zen, hau da %14,1ko gehikuntza izan zuen. Igoera nabarmena den arren, oraindik gizonen lan produktiboen %65 egiten dute. Kopuru orokor honek tan dagoen aldeaz gain, emakume eta gizonen artean bestelako ezberdintasunak ere ageri dira.

5.1.1. Langabezia

2010ko datuen arabera, Zaldibian biztanleria aktiboa 739 pertsonakoa da, Lanbideren 2010eko estimazioen arabera. Hauen artean 311 emakumeak eta 429 gizonak dira. Datu hauek, aurrerago ikusiko dugun lez, eragina izango dute langabeziaren datuen irakurketan.

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	%	GIZONAK	%
ZALDIBIA	739	311	2	429	58
GIPUZKOA	356 243	162 764	54.3	193 479	45.6

Taula 14: Biztanleria aktiboaren zenbatespena 2010erako. Iturria: Lanbide. Egilea: Farapi. S.L.

Lanbidetik lortutako **langabezia eskatzaileen** zifraren arabera, 2011ko Irailko eskatzaileen artean 92 pertsona daude. Horietatik 52 emakumezkoak dira eta 40 gizonezkoak. Datu hauen arabera emakumezko gehiago dago langabezi eskatzaileen artean. Gipuzkoan ere joera bera mantentzen da. Langabezia eskatzaileen datua garrantzitsua den arren, ez du langabezia-

ren errealitate guztia islatzen, horretarako ezinbestekoa da langabezi erregistratuaren datua, prestazioa eskatzen dutenak eta eskatzen ez dutenak jasotzen dituenak.

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
		%%%				
ZALDIBIA	52	56.5	40	43.4	92	100
GIPUZKOA	21 500	53.4	18 724	46.5.4	40 224	100

Taula 15: Langabezia eskatzaileak Zaldibian 2011ko Irailean. Iturria: Lanbide. Egilea: Farapi S.L.

Hurrengo tauletan adinaren eta sexuaren arabera langabezi erregistratuaren datuak ikusiko ditugu. Sexuari dagokionez, Zaldibian langabeziak gehiago eragiten die gizonezkoei emakumezkoei baino (28 emakume eta 31 gizon).

⁵ EMAKUNDE, (2010) *Desigualdad en la trayectoria y situación profesional de las mujeres en la CAE. Coste relativo de la pérdida de talento femenino*. Instituto Vasco de la Mujer.

WEB orrian kontsultatu liteke:
http://www.emakunde.euskadi.net/u7220010/eu/contenidos/informacion/cifras_ant/eu_emakunde/a



Grafikoa 8: Langabezi erregistratutako datuak sexuen arabera Zaldibian, 2011. Iturria: Lanbide. Egilea: Farapi S.L.

Adina eta sexuaren arabera Langabezi erregistratuko taulan ikusi daitekeen bezala, adin tarte guztietan langabetuak daude. Esan bezala langabeziak eragin gehiago du gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, baina hemen batez ere adin tarteaz hitz egingo dugu. Langabetu gehien jasotzen duen adin tarte 45tik gorakoena da, baita emakumezkoen artean ere (emakumeak 17 gizonak 13). Hau da, emakumezkoen artean adinean zenbat eta zaharrago langabezia igotzen doa, gizonezkoen artean aldiz ez.

	<25	25-44	>=45	Guztira
Gizonak	2	16	13	31
Emakumeak	2	9	17	28
Guztira	4	25	30	59

Taula 16: Langabezi erregistratua Zaldibian, sexu eta adinaren arabera, 2011ko urrian. Iturria: Lanbide. Egilea: Farapi S.L.

Datu hauek Gipuzkoa mailakoekin konparatzen baditugu, Zaldibiak kontrako joera duela esan dezakegu. Aldi batetik, Gipuzkoa mailan emakumezkoen langabezi datuak gizonezkoenak baino altuagoak dira, eta bestetik langabezi datu altuenak 26-44 urte artean daude.

	<25	26-44	>45	Guztira
Gizonak	1 856	9 445	7 423	18 724
Emakumeak	1 531	10 682	9 287	21 500

Taula 17: Gipuzkoako langabezi datuak, 2011. Iturria: Ine. Egilea: Farapi S.L.

5.1.2. Lan Sektorea

Lan sektoreak eragin izugarria du langileen lan baldintzetan, aldi berean lan sektorea zuzenean dago lotuta pertsonen formakuntza aukeraketarekin. Zaldibiako gazteen kasuan, behin derrigorrezko hezkuntza amaituta ikasleak nagusiki Oianguren institutura eta Goierri Eskolara bideratzen dira. Interesgarria da bi ikastetxe hauetako matrikulazio datuak aztertzea, bereziki sexuaren arabera egiten diren aukeraketak kontutan izanda.

Oianguren Institutuaren kasuan ondorengo taulan laburtzen dira matrikulazio datuak:

	Neskak	Mutilak	Guztira
Lehenengo Batxilergo			
Letrak	12	17	29
Zientziak	17	4	21
			50
Bigarren Batxilergo			
Letrak	22	5	27
Zientziak	13	20	33
			60
Goi mailako zikloak			
Lehenengo maila	24	1	25
Bigarren maila	24	1	25
			50

Taula 18: Oianguren institutuko matrikulazio datuak, 2011-2012 ikasturtea. Iturria: Oianguren institutua. Egilea: Farapi S.L.

Taulatik atera litekeen ondorio aipagarriena goi mailako zikloari dagokiona da. Kasu honetan, ziklo hau haur hezkuntzako da, eta agerian geratzen da irakaslegoaren gehiengo handi bat (ikasle bat izan ezik) emakumezkoa dela. Batxilergoei dagokienean, ez da ezberdintasun gehiegik nabarmentzen letretako eta zientzietako batxilergoen artean, lehen mailan, letretako ikasleen kopurua parekatua da sexuari dagokionez (12 neska eta 17 mutil. Zientzietan bestalde neskak gehiago dira (17 neska eta 4 mutil). Bigarren mailan joera hau irauli egiten da. Letretan neskak mutilak baina dezente gehiago dira (22 neska, 5 mutil) eta zientzietan mutilak neskak baina gehiago (20 mutil eta 13 neska).

Goierrri Eskolaren matrikulazio datuak aldiz ondorengoak dira:

Taula 19: Goierri Eskolako matrikulazio datuak, 2011-2012 ikasturtea. Iturria: Goierri Eskola. Egilea: Farapi S.L.

Mekanikako ingeniari-tza gradua			
INDUSTRI INGENIERITZA TEKNIKOA MEKANIKAN	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	182	26	156
	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:
	2	1	1
Erdi mailako zikloak:			
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	33	1	32
	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:
	1	0	1
MEKANIZAKETAN ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	35	2	33
	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:
	1	0	1
Goi mailako zikloak			
ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	33	28	5
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENEA GOI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	39	14	25
	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:
	1	1	0
INDUSTRIA-EKIPOEN MANTETZEAN GOI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	37	1	36
ERAIKUNTZA METALIKOAN GOI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	29	5	24
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOAN GOI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	78	12	66
	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:
	2	0	2
ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK
	30	3	27
	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:	Zaldibitarrek:
	1	0	1
TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK	MUTILAK

Goierrri Eskolako datuak ikusiz, argi eta garbi geratzen da ikasleen gehien-goia gizonetara dela. Eskaintzari erreparatu, eskaintzen diren ikasketak guztietan mutilak nagusitzen dira bi ikasketatan izan ezik: Administrazio eta Finantzarako Goi Mailako Teknikaria (28 emakume eta 5 gizon) eta Sukaldaritza eta Zerbitzuakoko langilea (14 emakume eta 9 gizon). Sexuen arabera ikasketak banaketa nabarmena da, industria mundura bideratutako ikasketetan mutilak dira nagusi, zerbitzuaren aldetik, neskek.

Esan bezala, ikasketen aukeraketa honek bere isla du lan merkatuan emakume eta gizonen lan egiten duten sektorean. Zaldibiaren kasuan ez da sektoreko lanaren daturik eskuratu izan, arazo honi aurre eginez, EAE mailako datuak ekarriko ditugu diagnostiko honetara. EAEko lan merkatuan emakumeek bizi duten egoeraren argazki orokorra egiteko baliagarriak izan daitezkeen beste datu batzuk berreskuratu ditugu, Emakundeko *Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak (2010) txostenetik*.

	Emakumeak	Gizonak
Nekazaritza	0.9	1.8
Industria	10	33.4
Eraikuntza	1.6	13.3
Zerbitzuak	87.5	51.6

Taula 20: 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakoetan), sektorearen eta sexuaren arabera. EAE. 2009. Iturria: INE. Egilea: Emakunde. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2010.

Txosten honetan jasotzen den moduan, gizonetara gehien-gehienak orekatuak dira emakumetara baino, batez ere industriari eta zerbitzuaren sektoreari dagokionez. Aipagarria da emakumetara proportzio handiena (%87,5) zerbitzuaren sektorean kokatzen dela, %0,9a nekazaritzan, %10 industriari eta %1,6a eraikuntzan.

Ikus litekeenez emakume gehienak zerbitzuaren sektorean kokatzen dira, sektore hau izanik gizon eta emakumeen presentzia oreka gehien mantentzen duena.

Lan sektoreak ez luke garrantzi berezirik izango sektorearen arabera lan baldintzak hainbeste aldatuko ez balira. Emakumeen gehien-goia biltzen duen zerbitzuaren sektorean, lan baldintzak gainontzeko sektoreetan baino okerragoak dira: status aldetik, ordutegi aldetik, soldata aldetik eta abar. Gipuzkoari dagokion EINEko datuen arabera (2009ko abuztuak datuak) behin-behineko kontratu gehien zerbitzuaren sektorean egiten dira, dena den, gogoan izan behar da sektore hau dela kontratazio maila altuena duena.

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Mugagabeko	24	128	124	786
Behinbehineko	75	1016	730	11 733
Guztira	99	1144	854	12 519

Taula 21: Kontratu mota sektorearen arabera, Gipuzkoa, 2009ko abuztua. Iturria: EIN. Egilea: Farapi S.L.

Zerbitzuaren sektorean biltzen dira lan merkatuan gutxien baloratzen diren lanak (gizartearen erreproduzitzeko ezinbestekoak diren zaintza lanak, esate baterako). Balorazio edo prestigio faltaren eraginez, nagusiki emakumeek egindako lan hauetan, baldintzak oso kaxkarrak dira. Azpikontratazioak hedatzen ari diren heinean, zerbitzuaren sektorea gero eta prekariagoa da.

5.1.3. Gizarte Segurantzza

5.1.3.1. Altak

Alteia dagokion azterketa honetan Gizarte Segurantzaren kontzeptuak dutenen datuak soilik agertzen dira, beraz, lurpeko ekonomiari dagokion datuak hurrengo atalean landuko dira.

Gizarte Segurantzaren ez dute herria, kasu honetan Zaldibia, eta sexua gurutzatzeko aukerarik ematen, beraz analisia mugatua gelditzen da.

Hurrengo taulan ikusten den bezala Gipuzkoa mailan langileen gehien-goia, Araubide Orokorren baitan kokatzen da, gero autonomoak datoz eta azkenik etxeko langileen kategoria dago. Bestalde, portzentaiarik txikiena duen esparrua nekazaritzarena da.

Gipuzkoako afiliazio datuak sexuka banatuta lortu daitezke eta datu haue-tatik, azpimarratu behar da Etxeko Araubidean emakumezkoak nagusi di-rela, 5.077 emakume daude, gizonak aldiz 254 dira. Autonomoen kasuan gizonezkoak emakumezkoen bikoitza dira. Nekazaritzan ere gizonezkoak emakumezkoak baino askoz gehiago dira.

		Araub. orokorra	Autonomoak	Etxeko Araub.	Itsasoko Araub.	Nek. Araub.
Gipuzkoa	Emakumeak	107 873.63	23 965.41	5 077.1	96.05	85.57
	Gizonak	122 624.63	46 588.46	254.89	619.84	525.63

Taula 22: Gipuzkoako afiliazio araubidea sexuen arabera, 2010. Iturria: Gizarte segurantzaz. Egilea: Farapi S.L.


5.1.3.2. Ezkutuko Ekonomia

Ezkutuko Ekonomia deitzen zaio, barne produktu gordinaren barruan sartzen ez den, eta estatuaren kontrolatik at dagoen ekoizpen-ondasun trukaketari. Ezkutuko ekonomiaren ezaugarri bat da Gizarte Segurantzaren alta emanda ez egotea, hau da, ez kotizatzea.

Hitzak berak adierazten duen moduan, ezkutuko ekonomiaren ezaugarri nagusia agerikoa ez izatea da, beraz, oso zaila izaten da jarduera mota hau kontabilizatzea eta bere inguruko datuak lortzea.

Ezin izan denez Zaldibiako daturik eskuratu, EAEko datuetan oinarrituko da diagnostikoaren atal hau.

EAEen, 2002an jasotako datuak abiapuntu izanik, jarduera ekonomikoaren %16,10 da ezkutuan egiten dena, eta ezkutuko ekonomian dauden jardueretatik %89a emakumeen eskutan dago.



Grafikoa 9: Ekonomia murgildua EAE 2002an. Iturria: LAB sindikatua. Egilea: Farapi S.L.

EKONOMIA MURGILDUA EAE 2002an	
Emakumezkoak	%14.30
Gizonezkoak	%1.80
GUZTIRA	%16.10

Taula 23: Ekonomia murgildua EAE 2002an. Iturria: LAB sindikatua. Egilea: Farapi S.L.

Kotizatu gabe ekonomia murgilduan lan egiteak inolako eskubiderik gabe uzten du langilea: ez du langabeziarik, ez jubilazio pentsiorik, ez lan-istripuen aurrean erantzun bat emango dion segururik, eta abar. Ekonomia murgilduan dauden langileen artean gehiengoa emakumea dela ikusirik, egoera honek bereziki hauei eragiten diela azpimarratu behar da.

5.1.4. Lan baldintzak

Aipatu denez lan baldintzak oso ezberdinak izan litezke sektorearen arabera, sexuaren arabera, jatorriaren arabera, eta abar. Gizon eta emakumeen lan baldintzen arteko konparaketa egiteko hainbat puntu hartuko dira kontutan. Kontratu motak, lanaldi motak, soldatak eta ardura postuak.

Aipatutako puntuen inguruan ez dagoen arren Zaldibiako datu konkreturik, EAEko ereduak Zaldibian ere bere isla izango duela auresoposatzen da.

5.1.4.1. Kontratu-motak

Kontratu motei dagokien informazioa ondorengo taulan laburtzen da.

	GUZTIRA	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Abs	Abs	%H	%V	Abs	%H	%V
Guztira	787.6	362.5	46	100	425.1	54	100
Mugagabea - fijoak	622	267	42.9	73.7	355	57.1	83.5
Aldi baterako	146.5	78.3	53.4	21.6	68.2	46.6	16
Kontratu gabeak	19.1	17.2	90.1	4.7	1.9	9.9	0.4

Taula 24: Kontratu motei buruzko informazioa. Iturria: Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2010. Egilea: Farapi S.L.

Aurreko taulan eta ondorengo grafikan kontratu motak ageri dira sexuaren arabera. Kontraturik gabeko pertsonen datua oso esanguratsua da, hauetatik %90a emakumeak baitira. Bestalde, aipagarria da kontratu finkoen artean emakumezkoak %42,9 direla eta gizonezkoak aldiz %59a.

Emakume eta gizonen artean bi ezberdintasun nabarmendu litezke. Alde batetik, emakumeek sinatutako kontratu guztien artean %73,7a mugagabeak direla eta gizonen kopurua 10 puntu handiagoa dela, eta bestetik, ekonomia murgilduaren atalean 4 puntu gutxiago dituztela. Bestalde, ikus liteke aldi bateko kontratuen portzentaia altuagoa dela emakumeen artean (emakumeek sinatutako kontratuen %21,6a eta gizonen sinatutako %16a). Kontratu gabekoen artean ere gehiago dira emakumezkoak (%4,7 emakumezkoak eta 0,4 gizonak). Datu guzti hauek agerian uzten duten prekarietateak eragin zuzenagoa duela emakumeengan.

Soldatei dagokienez, EAE-n emakumeen ordukako soldatak gizonezkoena baino baxuagoak dira taulan honetan ikusi daitekeen bezala.

	GUZTIAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
SEKTORE GUZTIAK	16.67	14.82	17.98
INDUSTRIA	17.83	15.09	18.43
ERAIKUNTZA	15.6	-	15.7
ZERBITZUAK	16.35	14.79	18.21

Taula 25: Orduko ganantzia sexuen eta sektorearen arabera, 2009. Iturria: EIN. Egilea: Farapi S.L.

Emakume eta gizonen arteko soldata diferentzia hau mantendu egiten da nahiz eta emakume eta gizonen sektore berean lan egin. Hau da, diferentzia honek ez dio soilik sektoren artean dagoen soldata ezberdintasunari erantzuten.

Ordorengo taulan argi eta garbi ikus liteke sektore berean, zerbitzuetan, emakumeen presentzia haundiago izanda ere, emakumeek gizonen baino gutxiago kobratzen dutela.

	GUZTIRA	EMAKUME.	GIZONAK
SEKTORE GUZTIAK	26 162.45	22 502.47	28 889.92
INDUSTRIA	28 585.28	24 501.6	29 469.36
ERAIKUNTZA	25 346.22	-	25 770.34
ZERBITZUAK	25 323.67	22 259.55	29 213.31

Taula 26: EAEko soldatak sexuen eta sektoren arabera, 2009. Iturria: EIN. Egilea: EIN.

5.1.4.2. Lanaldi motak

Lanaldia motan ere, osoa edo partziala, ezberdintasun aipagarriak existitzen dira EAEko emakume eta gizonen artean. Emakundeko 2007ko zifren txostenaren arabera EAEko emakumeen %28ak lanaldi partziala dauka, bestalde, gizonen artean %4,2a bakarrik da lanaldi partziala daukana. Beraz, lanaldi murriztuarena emakumeekin harremandutako fenomeno da esan daiteke. Gainera, lanaldi murriztuak eta ordukako lanak ohikoagoak direnez emakumeen artean, enplegu-aniztasuna ere hedatuago dago hauen artean. Lan erreproduktiboari eskainitako atalean sakonago landuko den arren komenigarria da aipatzea, emakumeen kasuan lanaldi murriztuak, kasu askotan, bizitza pertsonal eta profesionalaren arteko bateragarritasun beharrei erantzuten diela.

Lanaldi partzialarekin gutxiago kotizatzen denez, honek bere ondorioak ditu bai langabezia jasotzerako orduan baita jubilazioa kobratzerakoan ere.

5.1.4.3. Bereizkeria bertikala

Produktzio lanari eskainitako atal honekin amaitzeko, ezinbestekoa da emakumeen bizitza profesionalak baldintzatzen dituen beste fenomeno bat aipatzea: Bereizkeria bertikala. Prestakuntza edo kualifikazio maila bera

izan arren ardura edo zuzendaritza postuetan gizonak dira nagusi. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoriak⁶ 2008an argitaratutako txostenaren arabera EAEn zuzendaritza postuetan dauden pertsonetatik soilik %30 da emakumezkoa.

⁶ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoria, (2008). Emakumeak eta zuzendaritza-postuak: berdintasunaren ameskeria. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoria. Gasteiz.

5.2. LAN ERREPRODUKTIBOAK

Lanari eskainitako atal honen hasieran aipatu den moduan, berdintasunari dagokionez lanaren inguruko azterketa egoki bat egin nahi bada, ezinbestekoa da lanaz ari garenean erreprodukzio lanak eta bizitzari eusteko lanak ere kontutan hartzea.

Erreproduzitzeko eta bizitzari eusteko lanen artean egongo lirateke, besteak beste, pertsonen zaintza (ongizate fisikoa eta psikikoa bermatuz), janaria prestatzea, etxearen kudeaketa, garbiketa (pertsonena, etxearena, arropena, eta abar.) edo erosketak egitea.

Gainera, kontutan izan behar da, lan produktiboak eta erreproduktiboak zuzenean harremantzen direla eta batean hartzen diren erabakiek bestean eragiten dutela. Adibidez lan erreproduktiboak emakumeen esku geratzen badira, bateragarritasun arazoak bide, sarri esparru produktiboan lanaldi murriztuak edo ordukako lanak izaten dituzte.

2003. urtean egin zen erreprodukziozko lanak emakume eta gizonen artean banatzeari buruzko azken azterketa EAEn. Azterketa horretan lortutako emaitzen arabera emakumeek hartzen dituzte bere gain lan hauen %70a. Txosten berean jasotzen denez, erreprodukzio lana emakumeen esku egotea ez da izaten bakarrik gizon gehiago aritzen direlako produkzioa lanetan, izan ere, ondorengo taulan ikus litekeen moduan, lan horietara bideratutako denbora errepikatu egiten baita astegunen eta jaiegunetan.

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
OTORTUNAK PRESTATZEA	1.07	1.31	0.38
LANEGUNAK	1.07	1.3	0.36
IGANDEAK	1.13	1.36	0.44
GARBIKETA	1.05	1.1	0.49
LANEGUNAK	1.06	1.11	0.49
IGANDEAK	1,03	1.09	0.49
ARROPA	0.48	0.53	0.27
LANEGUNAK	0.49	0.54	0.28
IGANDEAK	0.49	0.55	0.31
BESTELAKO KONPONKETA BATZUK	0.18	0.16	0.25
LANEGUNAK	0.18	0.16	0.23
IGANDEAK	0.24	0.19	0.36
EROSKETAK	0.49	0.52	0.44
LANEGUNAK	0.48	0.48	0.46
IGANDEAK	0.17	0.22	0.14
KUDEAKETAK	0.5	0.37	1.03
LANEGUNAK	0.49	0.35	1.04
IGANDEAK	0.3	0.12	0.4

Taula 27: Parte hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora etxeko lan motaren, egunaren eta sexuaren arabera EAE 2008. Iturria: EUSTAT. Egilea: Farapi S.L

Erreprodukzio lanen sexuaren arabera banaketa hau Zaldibian ere nabarmentzen dela ikusi da landa lanean zehar. Bere betebeharrak medio, herriko gizarte langileak ondo ezagutzen du gai honen inguruko errealitatea, baita bertako biztanleak eta jendearekin lan egiten duten beste profesional batzuk ere, herriko medikuak esate baterako. Etxeaz eta familiaren zaintza eta hornikuntzaz nagusiki emakumeak arduratzen direla argi dute elkarrizketatu ditugun pertsonak.

Medikua: *Dudik gabe, beti emaztea hor dago, emaztearen figura, emaztea arduratzen da ba analisiak, errezetak, ez dakit zer, orokorrean horrela izaten da. Jende gazte batzuren artean ere, 30 urte inguruan, ba kontzientzia hori ez dago, delegatzen dute asko. Gehiago dago adineko jendearen artean "zer hartzen duzu?" eta lauk esango dizute, ez dakite, emazteak erantzuten du.*

Medikua: *Seme-alaben kasuan gehienak amarekin etortzen dira, eta pediatriarenera ere. Kasu batzuk izango dira aita eramatzen dituna baina orokorrean funtzio hori emakumeak egiten du.*

Bestealde, zaintzaren inguruan aipagarria den beste gai bat *ezgaitu kultural* gisa definitu daitezkeen errealitatea da. *Necesidades de las personas mayores que viven solas en Gipuzkoa*⁷ ikerketan horrela definitzen dira *ezgaitu kultural* hauek:

*[...] aipatzekoa da hainbat gizonek, superbibentziazkoak deitu daitezkeen jarduerak egiteko duten ezintasuna, etxearen mantenuarekin, higieinarekin, elikadurarekin etab.ekin erlazionaturiko jarduerak egiteko ezintasuna. Egoera honen ondorioz, gizon hauen gaitasunak asko mugatzen dira, batez ere bakarrik bizi behar badute. Hauei deitzen diegu "ez-gaitu kulturalak". Hau da, ez dute beren buruen zaintzaz arduratzea oztokatzen dien inolako arazo fisiko edo psikologikorik, baina honetaz inoiz arduratu ez direnez, ez dakite, ez dira ausartzen, edo besterik gabe, ez dituzte beren gain hartu nahi*⁸.

Gizarte langilearen eta herriko medikuaren hitzetan, Zaldibian ere, *ezgaitu kultural* kategorian sartu daitezkeen pertsonak aurki daitezke. Pertsona hauek familiako emakume batekin (ama, arreba...) bizi izan diren gizon ezkongabeak dira normalean. Emakumea etxeaz eta zaintzaz arduratzen den bitartean gizon hauek ez dute arazorik, baina hau ezindua gelditzen denean edo hiltzen denean arazoak sortzen dira etxearen kargu eta norberaren buruaren kargu egiteko. Gizarte langileak dion bezala, ez dira gai bere burua zaintzeko eta familientzako zama bihurtzen dira. Egoera hauen aurrean gizarte laguntzaileek ere ezin dute ezer egin.

Gizarte langilea: *Gizonezkoen perfila dia ba gizon solteroak, edo alargunak familia harreman kaxkarrarekin. Emakumeak zaintzen dira beraiek eta senarraren zaintzaz arduratzen dia. Guk ez dugu izan kasurik emazteak senarra egoitzan utzi duenik baina alderantzizkoa ba. Emakumeek zaintzen dute bere burua eta beste batena eta mantentzen dia ahal duten moduan. Aldiz, emaztea baldin badago gaizki eta senarrak zaindu behar badu pues errezago hartzen da egoitzara eramateko erabakia, "ezin dut egin nik", "enaiz gai ikusten"... Ta lagunduko du eta jungo da bisitan baina ia zaintza ardura hainbestekoa beregain hartzeko ba nik uste zailtasunak dituztela gehiago.*

Ezgaitu kultural bezala definitzen ditugun gizon hauek dituzten arazo oinarria kulturala da, hau da, gizon hauek gizon izateagatik ez dute bere burua zaintzeko beharrik izan, beti etxeko emakumeren bat izan da honetaz arduratu dena, ondorioz, denboraren eta beharren poderioz ardura falta hau ezgaitasun bihurtzen da, eta azkenean, arazo.

⁷ Farapi antropologia kontsultoriak Gipuzkoako Diputazioko Gizarte politikarako departamenturako 2005an burututako ikerketa bat da. Bertako ondorioak Gizarte politikako departamentuaren barne erabilpenerako burutu zen.

⁸ Jatorrizko gaztelaniazko itzulua.

Ezgaitu kulturalen egoera hau genero sistemak (gizonak ez baitira zaintza-rako hezten) sortzen dituen arazo larrienetariko bat da. Arazo honek familia egituraketetan eragiten du, baita Udaleko gizarte zerbitzuetan ere.

Jarraian aztertu nahi dena sexuaren arabera lan jardueretara eta bestelakoe-tara bideratzen den denboraren datua da. Ikus liteke, jarduera guztiak kon-tutan izanda, emakumeek denbora gehiago erabiltzen dutela. “Jardueraren bat duten emakumezkoen erdia baino gehiagok lanez kanpoko jardueraren bat dute; hau da, lan-merkatutik kanpoko. Horrek gizartean haiek duten statusari eragiten dio unean eta egoera ekonomikoari etorkizunean, pres-tazioak jasotzeko eskubideak oso desberdinak baitira, gizarte-segurantzari kotizatuz gero. Jardueraren bat duten emakume gehienei eragiten die ego-ra horrek, eta gizonezkoen kasuan %20,8ri bakarrik. Jarduerarik ez duen biztanleriari dagokionez, biztanleriaren %84,3 gizonezkoak dira, eta ho-rietatik gehienak (%93,1) pertsona erretiratu hertsia dira. 16 urte eta urte gehiagoko gizonezko guztien %20,5 jarduerarik ez duten biztanleriaren ka-tegoriakoak dira; emakumezkoen kasuan, ordea, %3,6 bakarrik dira. Datu horiek eta emakumezkoen ugalketa-lanei denbora gehiago eskaini izatea erabat lotuta daude, dagoeneko aurreko atalean aztertu duguna.”⁹

	Guztira	Emakumeak				Gizonak		
	Guztira	Abs.	%H	%B	Abs.	%H	%B	
Guztira	1825.3	938.9	51.4		886.4	48.6		
Jarduera duen biztanleria	1610.2	905.3	56.2	96.4	704.9	43.8	79.5	
Lan-jarduera duen biztanleria	964.84	06.5	42.1	44.9	558.4	57.9	79.2	
Gainokupatuak	34.4	9.8	28.52	2.4	4.6	71.5	4.4	
Okupatu hertsia	917.0	385.34	2.0	94.8	531.7	58.0	95.2	
Lan-jarduera duen gainerako biztanleria	13.31	1.3	85.0	2.8	2.0	15.0	0.4	
Lanez kanpo jarduera duen biztanleria	645.4	498.8	77.3	55.12	146.6	22.7	0.8	
Lanez kanpo jardueran okupatuak	628.34	86.6	77.4	97.6	141.7	22.6	96.7	
Lanez kanpo jarduera duen gainerako biztanleria	17.1	12.2	71.3	2.4	4.9	28.7	3.3	
Jarduerarik gabeko biztanleria	215.1	33.6	15.6	3.6	181.4	84.3	20.5	
Langabe hertsia	15.5	2.9	18.7	8.6	12.6	81.3	6.9	
Erretiratu hertsia eta beste batzuk	199.6	30.8	15.4	91.7	168.8	84.6	93.1	

Taula 28: 16 urteko eta gehiagoko biztanleria (milakoetan), jarduerarekiko egoeraren, adinaren eta sexuaren arabera, EAEn. 2007. Iturria: EUSTAT. PRA. Egilea: EMAKUNDE. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2007.

5.3. UDAL ARDURAK

Aurreko bi ataletan, lan produktibo eta erreproduktiboetan Zaldibiako emakume eta gizonen artean dauden desberdintasun berri jaso da, baina zer egiten du Zaldibiako Udalak desberdintasun hauek txikitzeko?

5.3.1. Produkzio lana

Lana eta langabezia ez dira Udalen zuzeneko ardura, beste erakunde ba-tzuetatik bideratzen diren iharduerak dira (Lanbide, Gizarte Segurantza). Dena den, lanarena udalaren eskumena izan ez arren, beharra ikusten bada programaren bat (sentsibilizazioarako, eta abar.) edo beste bultzatu liteke bertatik.

5.3.2. Erreproduzio lana

Erreproduzio lanari dagokionez, Zaldibiako udalak ez du emakume eta gizonen arteko desorekak zuzentzeko kanpainarik egin ezta programarik martxan jarri. Gai hau lantzeko arlo zehatzik ez dagoen bitartean ongizatea izan daiteke honen ardura hartzen duena, bai arloak eskaintzen dituen zer-bitzuetatik baita Zaldibiako errealitatearen inguruan duen ezagutza mai-lagatik ere. Dena den Ongintzan dagoen lan karga ikusita barne balorazio bat egin beharko da ardura bat gehiago esleitzearako orduan.

⁹ EMAKUNDE. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2007 (103).

5.4. LABURBILDUZ

Lanarena da emakumezkoen eta gizonezkoen artean alde handienetakoa duen esparrua.

Produkzioaren esparru

Hurrengo lerroetan agertzen diren ondorio orokorrak, ez dira Zaldibiakoak soilik, Gipuzkoa eta EAE mailakoak ere badira. Diagnostikoan zehar esan den bezala, lan esparruari dagokionez Zaldibiak ez du sail berezirik beraz gai honen inguruko daturik ez da existitzen.

- Emakume gehienak zerbitzuen sektorean kokatzen dira, zerbitzuen sektorea delarik lan sektore prekarioena.
- Ekonomia murgilduan dauden pertsonen artean gehiengoa emakumezkoak dira.
- Oro har, emakumeek lan baldintza okerragoak dituzte: Epe laburreko kontratuak, lanaldi murriztuak, soldata baxuagoak eta bereizkeria bertikala jasaten dituzte.

* Emakumeen diskriminazio egoerak eskuhartze zehatzak eskatzen dituen arren, momentuz, Udaletik lanaren inguruan ez da proiekturik abian jarri ezta genero ikuspuntutik lantzen dituzten inizatibak.

Erreproduktzioaren esparru

- Emakumeak dira proportzia handiengan lan erreproduktiboan ardura hartzen dutenak.
- Ardura honek beren bizitza profesional eta pertsonalak mugatzen ditu.

* Udalak erreproduktzio lanak errezteko errekursoak eskaini behar ditu, herritarrentzat familia eta lana bateragarriak izateko aukerak emanez. Bestalde sentsibilizazio eta kontzientziazio lana egin behar du, bereziki gizonekin, erantzunkidetasuna sustatzeko.

INDARGUNEAK

Zaldibian, lan esparruan oraindik proiekturik burutu ez izanak, bide guztiak irekita uzten ditu emakumeen lan munduko egoa hobetzeko proiektuak progamatzeko.

AHULTASUNAK

Ez da udaletik inolako lanik egin emakumeen lan baldintzak hobetzeko.

Zaldibiako udalean ez dago lanaren gaia landuko duen arduradunik.

HEZKUNTZA

Hezkuntza Formaleko guneak, beste hainbat gunerekin batera –familia eta komunikabideak esate baterako-, lehen mailako sozializazio-prozesuen protagonista izaki, funtzio garrantzitsua dute haur eta gazteak eskubide berdintasunean hezterako orduan. Hezkuntza Formala ere ez dago Udal-en eskumen zuzenen artean, baina sozializazio prozesuan duen garrantzia ikusirik ezinbestekoa da diagnostiko honetan jasotzea. Zaldibiako Udalean Hezkuntzaz arduratzen den zinegotzi bat dago, zinegotzi hau aldiro biltzen da eskolako zuzendaritzarekin.

6.1. ERREKURTSOAK

Zaldibian, hezkuntzako errekurtsuetan bi aipatu litezke: Zaldibiako Haurreskola eta Lardizabal Herri eskola.

Haurreskola

Haurreskolak urtebete baino gutxiagoko haurrentzako eta urtebetetik gorako haurrentzako gela bana du. Haurreskolen webgunean jasotzen denez (<http://www.haurreskolak.net/centro?id=155>); goizeko 8:00etatik arratsaldeko 16:30etara dago irekia haurreskola. Gelei dagokienez, ondorengo taulan laburtzen dira gela bakoitzeko plazak:

< 1 urte	
Gela-kopurua	1
Plazak orotara	8
Egun okupatuak	7 plaza (3 mutil eta 4 neska)
Plaza libreak	1

1 urte	
Gela-kopurua	1
Plazak orotara	13
Egun okupatuak	10 plaza (2 mutil eta 8 neska)
Plaza libreak	3

Taula 29: Zaldibiako haurreskola. Iturria: Haurreskolen webgunea. Egilea: Farapi. S.L.

Langileriari dagokionez, egun lau lagunek egiten dute lan Haurreskolan, jardunaldi osoan hiru pertsona daude (hiru emakume) eta jardunaldi erdian pertsona bat (gizonezkoa). Amaitzeko, aipatu behar da Partzuergoak badue-

la 2010-2014 epeari dagokion Berdintasun plana¹⁰.

Lardizabal Herri Eskola

Lardizabal Herri Eskolan, 12 urte bitarteko haurrak egoten dira. DBHa egitera ondoko herrietara, bereziki Ordiziara, joaten dira Zaldibiako neska-mutikoak.

Matrikulazio datuak jasotzen dituzten arren, ez dauzkate sistematizatuta, beraz ez dago matrikulazio datuen sexuaren arabera azterketarik egiterik. Irakaslegoari dagokionez, egun Zaldibian 15 irakasle daude jardunaldi osoan, guztiak emakumezkoak. Jardunaldi erdian dagoen beste irakaslea ere emakumezkoa da. Langile guztiak emakumeak izanik, zuzendaria eta orientatzailea ere emakumezkoak dira.

Zaldibiako kasuak bete-betean bat egiten du 2007an Emakundek Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostenean jasotakoarekin. Txosten honen arabera, 2006/2007 ikasturtean EAEn, aurreko urteetan bezala, irakasleen sektorean emakumezkoak ziren gehiengoa %66,5a hain zuzen ere. Zaldibian, irakaslego osoa da emakumezkoa.

Eskolatik eskaintzen diren beste zerbitzu batzuetan, jangela zerbitzua kasu, langile guztiak ere emakumezkoak dira, bai bi sukaldariak eta baita 5 zaintzaileak ere.

Gizonezkoen presentzia eskolatik antolatzen diren tailerretara eta kirol jardueretara mugatzen da, bertsolaritza eta antzerki tailerrak ematen dituztenak gizonezkoak dira. Eskolaz kanpoko kirol jardueretan ere, entrenatzaile gisa aritzen direnak gizonezkoak dira (nahiz eta aurtan emakume bat ere egon). Arbitraia lanetan aritzen diren guztiak gizonak dira.

¹⁰ Nahi duenak kontsulta dezake: http://www.haurreskolak.net/plan_igualdad_webgunean.

6.2. BERDINTASUNA BULTZATZEN DUTEN PROGRAMAK

Ikastetxeak oso espazio egokiak dira hezkidetza programak, erantzunkidetasun programak, etab. bultzatzeko, hala ere, Lardizabal Herri Eskolak ez du gai hauek lantzeko programa konkreturik garatu. Dena den, eskolako zuzendariak aipatzen duen gisan egunerokoan zeharka lantzen duten gaia da:

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Eguneroko lanean ez da gai bat ahaztuta daukaguna nahiz eta espreski ez landu. Ez dakit egunerokoan dauden txiste ta holakoak sahiesten saiatzen gara. Eguneroko egoera formaletan ez da hainbeste nabaritzen, gehiago informaletan. Ta nabaritzen denean, hezitzen ari garen ikuspegitik ba irakaslego guztia dago sentsibilizatua. Terminologian ta gauza guzti horietan ari gara lanean pixkanaka-pixkanaka eta egunero, konturatzen garen guztietan.*

Emakumeen eskubide eta aldarrikapenekin zerikusia duten egunetan, hala nola, Martxoaren 8a edo azaroaren 25a, ez da zentrutik ezer berezirik egiten, irakasle bakoitzaren irizpideen arabera izaten da.

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Azaroak 25, martxoak 8, ez dira ikastetxe bezela gauza bereziak egiten, agian ba gela bakoitzean zerbait egiten da, testutxo bat irakurri... Horiek ez dauzkagu urteko plangintzan sartuta agian izan litezke sartu beharrekoak.*

Egunerokoan berdintasuna zeharka lantzeko bi alderdi garrantzitsu aipatu behar dira: Irakaslegoaren sentsibilizazioa eta formakuntza eta eskola materialen egokitasuna. Lehenari dagokionez, irakaslegoa oso sentsibilizatua dagoela aipatzen da ikastetxeko zuzendaritzatik, dena den, gaiaren inguruan formatzen jarraitzeko denbora falta ere aipatzen dute.

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Irakaslegoak, orain urte batzuk, badakit zeharlerro bezala norbaitek landu zuela, baina azken urteetan zehazki ez gara gai horretan formatu, gure arazoa da denbora. Nola hala sistematizatuta ez daukagu, baina hori da gai bat zaintzen dela eta asko!*

Eskola materialari dagokionez, azken urteetan, eskola liburu eta materialei begira asko aurreratu dela uste dute zuzendaritzan. Egun ere du berriak, rol berriak eta abar lantzen dira eskola materialetan eta horrek ere errezten du irakaslegoaren lana.

Berdintasun gaietan aurrerapausoak eman direla onartu arren, sarri bestelako jarrerak ere antzematen dituzte ikasleen artean, horregatik lanean jarraitzeko beharra azpimarratzen da.

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Ta diferentziak, nahiz eta guri iruditu ezetz, obserbatzen degu ematen direla, bai. emakumeen irudian, roletan.*

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Hirugarren zikloan, iaz egin genuen harremanen inguruko saioa ta jaso genuen emaitzenta ikusten zen ba batzuk ba berdintasun puntu hori nahiko urrun zutela, rol horiek mantentzen zirela. Datu bezela azaldu zen bai. Gaia ez zen hori zehazki, lagun arteko harremanak landu ziren baina hori ere atera zen. Gai honetan egiteko lana daukagu, lan luzea, ikusten diren gauzak ikusita jarraitu beharra daukagu honekin.*

Ezberdintasun hauek ez dira soilik ikasleengan antzematen. Gurasoen artean ere oraindik nabarmena da haurren zaintza amen esku geratzen dela; haurren bila eskolara joatea, geletako bileretara, etab.

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Gurasoen partehartzea gelako bileretan eta ba aita gutxi dira etortzen direnak, normalean amak dira. Haurrak eraman-jaso eta hori berdinduagoa dago, nahiz eta amen presentzia oraindik ere haundiago den.*

Gurasoen arteko ezberdintasun hauek bere isla dute ikastetxeko Guraso Elkartean. Lardizabal Ikastetxeko orientatzaileak argitzen duenez, momentuan, guraso elkartean dauden ordezkari guztiak emakumezkoak dira, 2 urteko gelako ordezkaria izan ezin. Eskola Kontseiluan beste gizonezko bat dago, beraz 10 partaidetatik bi gizonezko soilik kontatu litezke.

Guraso Elkartek aktiboki parte hartzen du ikastetxeko dinaminakn, Eskola Kontseiluan parte hartzeaz gain, ikastetxearen elkarbizitza plangintzaren diseinuan ere protagonista izaten dira.

Lardizabal eskolako zuzendaria: *Guraso elkartek ikastetxearen elkarbizitza plangintza egiten kolaboratzen du, haiekin adosten dira helburuak eta abar. Bilerak iraunkorra daukagu hilabetearen behin, zubi lana egiten dugu. Eskola Kontseiluan ere parte hartzen dute noski. Eta gero behar denean biltzen gara, hitzaldi eta bestelako proposamenak egiteko.*

Eskolako barne dinamiketan parte hartzean gain, kultur dinamizatzailerekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeaz arduratzen da Guraso Elkartea: kirol jarduerak, Eguberritako ekintza bereziak etab. Eskolaz kanpoko jarduera hauek antolatzeko ikasle ohien laguntza izaten dute. Jarduera hauetan arreta berezia eskaini behar zaie kirol ekintzei, izan ere, eskolatik argitu zen bezela, entrenatzaile lana egiten dutenen artean gehiengo (bat izan ezik) gizonezkoa baita. Arbitroen kasuan ere gauza bera gertatzen da.

Lardizabal eskolako orientatzailea: *Eskolaz kanpoko kirolean badugu entrenatzaile emakumezko bat, ama bat, Ikasle ohiak dira entrenatzaile lana egiten dutenak, neska entrenatzaileak izan ditugu. Arbitrajea denak mutilak dira, hori bai.*

Kirolarena esparru maskulinizatua dela ez dago zalantzarik, esparru honetan hurrek eredu ezberdinak (emakumezkoenak) eskura izatea oso garrantzitsua izango litzateke.

6.3. LABURBILDUZ

Zaldibian hezkuntzari dagokionez bi baliabide daude: Haurreskola eta Lardizabal Ikastetxea.

- Haurreskolak badu bere funtzionamendua arautuko duen Berdintasun Plana.
- Lardizabal Ikastetxean berdintasun gaia zehar-lerro gisa lantzen da.
- Ez dira ekintza bereziak egiten emakumeen eskubide eta aldarrikapenekin lotutako egunetan (martxoak 8, azaroak 25, etab.).
- Irakasleak genero gaietan formatzen jarraitzeko denbora falta du.
- Ikaslearen artean joera sexistak mantentzen dira zenbaitetan.
- Gurasoen artean ere ezberdintasunak antzematen dira: haurren zaintzaren ardura (eskola eraman, gelako bileretara joan,...) nagusiki emakumeen eskutan geratzen da.
- Eskolaz kanpoko jardueretan -kirol jardueretan bereziki- eredu maskulinoak soilik dituzte hurrek.

INDARGUNEAK

Haurreskolak berdintasun plana dauka.

Lardizabal Ikastetxean garrantzi haundia ematen diote emakume eta gizonen berdintasunaren gaiari eta egunero lantzen saitzen dira.

AHULTASUNAK

Irakaslegoak formatzen jarraitzeko denbora falta du.

Urteko programan berdintasunaren gaia lantzeko egunak sistematizatu beharko lirateke.

Gurasoekin arduren banaketaren inguruan lan egin beharko litzateke.

ONGIZATEA

Gizon eta emakumeen arteko egiturazko desoreka dela eta (lan munduan baldintza okerragoak, ardura erreproduktiboen banaketa ez ekitatiboa, eta abar.), emakumeek aukera gehiago dituzte babes gabezia egoerak pairatzeko. Erakunde publikoetatik maila ezberdinetan lan egiten da pertsona guztiek gutxieneko baliabideetara (baliabide ekonomiko, sozial eta kulturalak) sarbidea izan dezaten. Politika hauetan genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da egoerari erantzun eraginkor bat emateko.

7. 1. UDALA

Udal mailan Gizarte Zerbitzuak dira herritarren diskriminazio egoerei irteera emateko baliabide gehienak (teknikoak, ekonomikoak, eta abar.) kudeatzen dituztenak. Hori horrela, emakumeen egoera aztertu eta hobetzeko bideak proposatzeko ezinbestekoa da gizarte zerbitzuen analisia egitea.

7. 1.1. Gizarte Zerbitzuen deskribapen orokorra

Zaldibiako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila udalerriko herritarren eta taldeen zerbitzura dagoen zerbitzu publiko irekia da, eta helburu hauek betetzeko egiten du lan: bizi-kalitatea hobetzeko eta ongizate biologikoa, psikologikoa eta soziala sustatzeko.

Horretarako, jarduera hauek gauzatzen ditu:

- Udalerriko aberastasuna hobeto banatzen laguntzea.
- Herritar guztien informaziorako eta orientaziorako eskubidea bermatzea eta bizikidetzarako euskarriak ematea nor bere ingurunean era autonomoan bizi dadin.
- Sozializazioaren eta baliabide normalizatuen alde egitea, bazterketa-egoeran, egoera okerretan eta egokitu ezinezko egoeretan dauden zerbitzu-sistema normalizatze aldera.
- Ingurunea sentiberatzea eta herritarren erantzuna bultzatzea, gizarte-bazterketa egoerak eraginda herritarrek arazoak dituztenerako.

Horiek lortzearren, zenbait estrategia garatzen dira, informazio-, orienta-

zio- eta bitartekaritza-arlokoak; nork bere gaitasuna lortzeko euskarriak eskaintzen dira; Hori guztia koherentziaz txertatzen da ardura publikoa duen udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailean.

Adi berean, beste erakunde publikoetako zerbitzu-sistema batzuekin elkarlanean, zerbitzuak herritarrengandik hurbil jarrita eta nola ez, oso garbi edukita banakoek eta taldeek eskubidea dutela duintasunerako eta intimitaterako, arreta pertsonalizatua jasotzeko, desberdina izateko, nork bere erara antolatzeko norbere bizia, berdintasunerako, gizarte integratiorako, partaidetzarako eta garapen oso eta aserako¹¹.

Udaletik eskaintzen diren zerbitzuak, oro har, Gipuzkoako Foru Aldunditik eskaintzen diren berdinak dira:

- Dirulaguntzak: Larrialdi laguntza eta Oinarrizko Errenta.
- Etxez-etxeko laguntza.
- Egoitza zerbitzuak.
- Eguneko egoitza
- Ez-gaitasun balorazioak
- Inoren laguntza behar duten pertsonen diru-laguntza kudeaketak
- Etab.

7. 1.2. Langileria datuak

Gizarte zerbitzuetan soilik emakumeek lan egiten dute. Guztira 2 langile dira. Gizarte lana, beste hainbat lan esparru bezala, oraindik ere guztiz feminizatua dagoen esparru bat dela ikus liteke datu hauetan.

¹¹ Zaldibiako Udaleko webgunetik ateratako informazioa.

AZPIARLOAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
GIZARTE LANGILEAK	1	-	1
GIZARTE LANGILEAREN LAGUNTZAILEA KUDEATZAILEA	1	-	1
GUZTIRA	2	-	2

Taula 30: Zaldibiako Gizarte Zerbitzuak, langileak sexuaren arabera, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea:Farapi S.L.

Zaldibia herri txikia izanik, gizarte langilea astean lau egunetan joaten da: Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan. Jendaurreko zerbitzua astelehen eta ostegunetan ematen du, gainontzeko bi egunak kudeaketa lanetarako baliatzen ditu (txostenak egin, lan bilerak eta abar.).

7.2. PERTSONEN ETA FAMILIEN PROBEZIA ETA BABES GABEZIA MAILA

7. 2.1. Pobrezia

2006an Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak Gizarte Zerbitzuen eskaerari buruzko txostena egin zuen erkidegoko pertsonen eta familien pobrezia-maila eta babes gabezia neurtzeko. Txosten honetako datuak erabili zituzten Emakunden emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak zifratzen jasotzen dituen dokumentua egiteko. Dokumentu honetan egiten den argazki orokorrak Zaldibiakoko egoera ulertzeko gakoak ematen ditu.

Datuak lortzeko egindako inkestaren emaitzak ondorengo taulan laburtzen dira.

	Guztira	Emakumeak			Gizonak		
	Abs.	Abs.	%H	%B	Abs.	%H	%B
Txiroa	22 563	4 422	19.6	1.2	18 141	80.4	1
Nahiko txiroa	42 115	19 036	45.2	5.0	23 079	54.8	1.3
Gutxienez nahiko txiroa	64 677	23 478	36.3	6.2	41 199	63.7	2.3
Moldatzen	837 438	196 798	23.5	51.8	640 640	76.5	36.2
Erosoa	1 246 914	159 605	12.8	42.0	1 087 309	87.2	61.5
Guztira	2 149 030	380 378	17.7	100	1 768 652	82.3	100

Taula 31: Biztanleria pobrezia subjektiboaren egoeraren eta pertsona nagusiaren sexuaren arabera, 2006 EAEn. Iturria: JLGSS. Gizarte-Zerbitzuen eskaerari buruzko txostena. Oharra: 2007. urtean argitaratua.

Taula honetan bi datu nabarmendu litezke. Alde batetik, ezberdintasun nabarmena dagoela beraien egoera eroso dela uste duten gizonezkoen eta emakumezkoen artean (gizonen portzentaia %61,5koa da eta emakumezkoena aldiz %42koa). Eta bestetik, inkestaturiko emakumeen artean %6,2ak uste du egoera txiroan edo nahiko txiroan bizi dela, gizonen artean %2,3ak du pertzepzio hori.

Gabezia egoera larriren bat baduten galdetu pertsona gehienek ezezkoa erantzuten dute, baina ondorengo taulan ikus litekeenez, dimentsio anitzeko gabezia edo gabezia partzialeko egoeraz galdetuta emakumeen %12ak kokatzen du bere burua egoera horretan, gizonen artean %5,9a, hau da erdia, da egoera hori bizi duela uste duena.

	Guztira	Emakumeak			Gizonak		
	Abs.	Abs.	%H	%B	Abs.	%H	%B
Dimentsio anitzekoa	42 269	15 597	36.9	4.1	26 672	63.1	1.5
Partziala, oinarritzko esparruetan	107 118	29 886	27.9	7.9	77 232	72.1	4.4
Partziala, asialdiko esparruetan	32 200	4 444	13.8	1.2	27 756	86.2	1.6
Gabezia garrantzitsuren bat	181 587	49 936	27.5	13.1	131 651	72.5	7.4
Inolako gabezia garrantzitsurik ez	1 967 443	330 530	16.8	86.91	636 913	83.2	92.6
Guztira	2 149 030	380 378	17.7	100	1 768 652	82.3	100

Taula 32: Biztanleria gabezia larriko egoeraren eta pertsona nagusiaren sexuaren arabera, 2006, EAE. Iturria: JLGSS. Gizarte-Zerbitzuen eskaerari buruzko txostena. Oharra: 2007. urtean argitaratua.

Txirotasunak edo gabezia ekonomikoak dimentsio ugari dituen arren, prekaritatea eguneroko gastuak eta bizi maila mantentzeko errenta nahiko ez izatearen ondorioa da. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak 2008ko datuak jasotzen dituen *Txirotasun eta Ezberdintasun Sozialen inguruko Inkestan*¹² (2009ko maiatzean argitaratua) txirotasuna bi mailatan bereizten dute.

a) Oinarritzako beharrak, elikadura, etxebizitza, arropak eta oinetakoak, asetzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea.

b) Oinarritzako beharrak aseta izan arren, gutxieneko ongizate eta erosotasun maila bermatzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea.

Inkesta zabal eta sakona den arren, emakumeak txirotasun egoerak jasatera sentikorragoak direla frogatzen duten datuak soilik ekarri dira orri hauek. Inkestaren ondorioetan txirotasuna jasateko arrisku egoeran dauden kolektiboak jasotzen dira, ondorengo zerrenda osatu dute (arrisku gehien dutenetik gutxien dutenera):

- 45 urtetik beherako emakumea, lan ezegonkorrekin eta familia monoparentaleko burua.
- Bakarrik bizi den 45 eta 64 urte bitarteko emakumea.
- Europar Batasunaz kanpoko nazionalitateko pertsona.
- Bakarrik bizi den eta lan ezegonkorra duen 65 urtetik beherako gizona.

Emaitza hauetan ikusten denez arrisku gehien duten lehen bi taldeak emakumezkoenak dira. Lanari eskainitako atalean esandakoa gogora ekarriz, emakumeek lan baldintza okerragoak dituztela ikusiz (kontratu ez egonkorragoak, ordutako lanak, soldata eta jubilazio baxuagoak, eta abar.) eta ardura erreproduktiboak beren gain hartzen dituztela gogoratuz (dibortzio edo banaketa kasu gehienetan amak izaten dira haurren zaintzarekin geratzen direnak), inkestaren emaitza hauek ez dira harritzekoak.

¹² Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, (2009). Encuesta de pobreza y desigualdades sociales 2008. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.


7. 2.1.1. Diru laguntzak

Oinarrizko gizarte zerbitzuetatik txirotasun egoerei aurre egiteko hainbat diru-laguntza kudeatzen dira. Diru laguntza hauen eskatzaileak aztertuz esparru honetan Zaldibiako errealitatea nolakoa den ikus liteke.

Ondorengo taulan laburtzen dira 2011an ongintzatik kudeatutako diru laguntzak, Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL) eta Oinarrizko Errenta (OE) bermatzeko laguntzak.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
OINARRIZKO ERRENTA	20	7	27
LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA	1	3	4
GUZTIRA	21	10	31

Taula 33: Diru laguntzak sexuaren arabera, Zaldibia 2011. Iturria: Zaldibiako Ongintza Arloa. Egilea: Farapi S.L.



Grafikoa 10: Diru laguntzak sexuaren arabera, Zaldibia 2011. Iturria: Zaldibiako Ongintza arloa. Egilea: Farapi S.L.

Taulan eta grafikoan ikus litekeen moduan eskatzaileen artean gehiengoa emakumeak dira, 31 pertsonetatik 21 emakumezko eta 10 gizon, bikoitza beraz. Taula hau osatzeko interesgarria izango litzateke sexuaren aldagaiari beste batzuk (familia mota, jatorria, eta abar.) gehitzeko aukera izatea, horrela arriskuan dauden pertsonen perfil osoagoak eginez.

Gurutzatutako datu kuantitatiborik ez dagoen arren, herriko gizarte langilearekin izandako elkarrizketari esker osatuko da atal hau. Gizarte langilearen arabera diru-laguntza eskatzaileen perfila aldatu egin da, batez ere krisi egoeraren ondorioz:

Gizarte langilea: *Ba dirulaguntzetan ere demanda gehitu da asko, jende mota ere, niri iruitu zait ba azken urtebetean edo ba jende bat kili-kolo zebilena, ba bere arazotxoekin baino subsistitu duna bonantza egoeratan, bere lantxoekin eta horiek hasi dira eroritzen. Kili-kolo zebiltzanak erori dira danak. Inmigranteak ere erori dia, horiek ere sisteman margenetan egon dira eta krisi egoeran ba erotzen dira. Nik bestela ez det nabaritu ba familia egonkortuetan, ba ikasketa edo lan maila jakin bat dutenak ba oraindik ez dia, ba igual oraindik paroko prestazioarekin eta... ba tarte horretan daude.*

Krisi egoeretan, aurrez larrien dauden pertsonak izaten dira kaltetuenak, gizarte langileak aipatzen duenez etorkinak eta bestelako “arazotxoak” zituzten pertsona edo / eta familiak izan dira krisi hau azkarren pairatzen hasi direnak.

7. 2.2. Babes gabezia

Diru-laguntzez gain, babes gabezia eta bazterkia egoeran dauden pertsonen beharrei erantzuteko hainbat zerbitzu eskaintzen dira Ongintzatik. **Hirugarren adineko pertsonen kolektiboa** izan liteke babes gabezia jasaten duen taldeetariko bat. Gogoan izan behar da adinaren eraginez dependentzia arazoak izan ditzaketela, pentsio bajuak eta abar.

Gizarte langilea: *Beti behar egoera batean dagoen norbait etortzen da, beharra ez da beti materiala, egoera bat dago, behar bat dago familia horretan ezin dutena bete eta horri aurre egitera datoz. Jende mota ezberdina ikusten det eta Zaldibian konkretuki adinduak oso kopuru haundia dia, ordun ez gaitasunak, ezintasunak... eta halakoak asko izaten dira. Zaintzarako laguntza teknikoak...*

Aipatu diren arazoei aurre egiteko hainbat zerbitzu eskaintzen dira Zaldibiako Udaletik, orien artean etxez-etxeko laguntzarena. 2011Ko datuak ondorengo taulan ikus litezke. Zerbitzua 11 lagunek jasotzen dute, hauetatik 7 emakumezkoak dira eta 4 gizonezkoak.

EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
7	4	11

Taula 34: Etxez etxeko laguntza sexuaren arabera Zaldibia, 2011. Iturria: Zaldibiako Ongintza Arloa. Egilea: Farapi S.L.

Zaldibin, etxez-etxeko langileak Udaleko langileak dira. Gainera urtetako lanari esker, modu koordinatu batean lan egiten dute gizarte zerbitzuekin eta herriko osasun-zerbitzuekin.

Hala ere, nahiz eta emakume gehiegoa izan etxez etxeko laguntza jasotzen dutenak, gizarte laguntzaileak adierazten duen moduan, emakumezkoak, gizonezkoekin konparatuz, ezintasun maila berdinarean aurrean biziraupenerako gaitasun gehiago dute. Gizon alargunek eta ezkongabeek lehenako eskatzen dituzte laguntzak.

Gizarte langilea: *Gizonezkoen perfila dia ba gizon solteroak, edo alargunak familia harreman kaxkarrarekin. Ba emakumeak ba zaintzen dira beraiek eta senarraren zaintzaz arduratzen dia. Guk ez dugu izan kasurik emazteak senarra egoitzan utzi due-*

nik baina alderantzizkoa bai. Emakumeek zaintzen dute bere burua eta beste batena eta mantentzen dia ahal duten einen. Aldiz, emaztea baldin badago gaizki eta senarrak zaindu behar badu pues erreago hartzen da egoitzara eramateko erabakia, "ezin dut egin nik", "enaiz gai ikusten"... Ta lagunduko du eta jungo da bisitan baina ia zaintza ardua hainbestekoa beregain hartzeko ba nik uste zailtasunak dituztela gehiago.

Zaintzaren ardua oraindik emakumeek oso barnertua duten zerbait da. Gainera, gizarteak emakumeengandik espero duena hauek zaintzaz arduratzea da.

Gizarte langilea: *Emakume batek senarra ez zaintzea erabakitzen badu, sistemari berari arraroa egiten zaio. "harritu" egiten gaitu eta bestelako azalpenen bila hasten gara. Eta alderantziz bazan ez genuke irakurketa hori egingo. Emakumeok badugu barnertuago zaintzaren ardua gurea dela. Zaintzaren inguruko ikastaroak badaude, danak emakumeak juten dira, danak, danak.*

Zaharren egoitzei eta eguneko zentruetara dagokionez, Zaldibian ez dagoenez, Zaldibiarrak Lazkaoko eta Ordiziako zaharren egoitzara bideratzen dira. 2011Ko datuen arabera, 5 zaldibiar daude Lazkaoko zaharren egoitzan, bostak emakumezkoak

ZAHARRAREN EGOITZA	
EMAKUMEAK	5
GIZONAK	0
GUZTIRA	5

Taula 35: Zaharren egoitza erabiltzaileen arabera, Zaldibia 2011. Iturria: Ongintza arloa. Egilea: Farapi S.L.

Eguneko zentruari dagokionez bi pertsonak erabiltzen dute zerbitzu hau, emakume batek eta gizon batek.

EGUNEKO ZENTRUA	
EMAKUMEAK	1
GIZONAK	1
GUZTIRA	2

Taula 36: Eguneko zentrua erabiltzaileen arabera, Zaldibia 2011. Iturria: Ongintza arloa. Egilea: Farapi S.L.

Garai batean eguneko egoitza eta zaharren egoitzara Ordiziara joaten ziren arren, egun Lazkaora joateko joera nagusitu da zaldibitarren artean. Gizarte langileak aipatzen duenez, Lazkaoko eraikina berria da eta instalakuntzak oso egokiak dira, eta honek jendea animatu du:

Gizarte langilea: *Lazkao iriki zan ta egia esan instalazioak honak dira, leku laua, eguzkitsua, logelak ere bakarkakoak dira... eta ahoz-ahokoaren, jendea ondo hitzegiten hasi zen, ta hola hasi dira Lazkaorako joera.*

Bestalde, aipatu behar da Lazkaon plaza psiko-geriatrikoak daudela laguntza gehieago behar duten pertsonentzat eta gainera udako oporraldietan ere familiek deskantsatu dezaten zerbitzua ematen du. Zerbitzu hau erabili dutenek, egunen batean egoitzara joan behar izan ezkerro lehen pausoa, tokia ezagutzearena, emana dute iada.


Gizarte langilea: *Adibidez udarako “respiorako” ba ordizian eta Beasainen ez dituzte hartzen ta Lazkaon bai. Ta jendea jun da Lazkaora, pasatu du hilabete eta beraintzat sarrera bat da eta horrek errezten du. Egunen baten egoitzara juten bada ba eza gutzen du eta segurona Lazkaora joango da.*

Zaldibitik Lazkaora joateko garrai-publiko zerbitzua nahiko aldrebes geratzen den arren, erabiltzaileak eta heuren familiak egoerara moldatu dira. Gainera, geroz eta herritar gehiago izan Lazkaoko egoitzan, orduan eta gustorago sentitzen dira 3.adinekoak, heuren lagunartea osatzeko aukera gehiagorekin.

Ez gaitasun balorazioei dagokienez, 2011n 76 balorazio egin ziren, 52 emakumezko eta 24 gizonetzko.

EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
52	24	76

Taula 37: Menpekotasun balorazioak sexuaren arabera, Zaldibia, 2011. Iturria: Zaldibiako Ongintza Arloa. Egilea: Farapi S.L.



Grafikoa 11: Menpekotasun balorazioak sexuaren arabera, Zaldibia 2011. Iturria: Zaldibiako Ongintza Arloa. Egilea: Farapi S.L.

Amaitzeko, menpekotasun legearen inguruan gizarte langileak eginiko gogoetak berreskuratu nahi dira. Dependentsia legeak aldaketa izugarria suposatu du gizarte zerbitzuen, eta nola ez etxean menpekoak zaintzeaz arduratzen diren pertsonentzat. Zaintza lan hau “dohainik” egiten zen Legearen aurretik eta Legeari esker dirulaguntzak ematen direnez,

ordurarte Gizarte Zerbitzuetara inguratu gabeko pertsonak gerturatu dira laguntza hauek eskatzera.

Gizarte langilea: *Menpekotasun legeak egin du jende asko hurbiltzea lehen etzana hurbiltzen, horrek ere, nik uste det Gizarte Zerbitzuetarako ekarri dula igual ez markatua izatea. Gizarte zerbitzuak izan dira hola pixkat retxazoa sortu dutenak, eta orain ba menpekotasuna dutenekin ba eztago hain estigmatizatua, familiak ez daude estigmatizatuak. Zentzu horretan gizarte zerbitzuak hurbilago daude. Bestalde, orain arte oso laguntza erraza izan da, erraza sentiduan, orain arte zaintza egin duten familiak etxeetan ez dute laguntzarik izan, orduan izan da “goxoki” bat, ba lehen doainik egiten zen zerbait ba orain laguntza bat dago. Gizarte zerbitzuetara inguratu da jende bat lehen etortzen ez zena eta orain gizarte zerbitzuak beste modu batetara ikusten dira, beste begi batzuekin.*

Diru-laguntza eskatzeko, menpekotasun duen pertsonarekin batera bizi behar du zaintzaileak. Zaldibian 71 eskera egin dira, 40 emakume eta 31 gizon zaintzaile gisa izendatu direlarik. Gizarte Laginlearen iritziz, emakume eta gizonen kopuruak parekatuak badira ere, honek ez du bat egiten errealtatearekin. Gauza bat da diru-laguntza eskatzerakoan nor izendatzen den zaintzaile gisa eta beste bat benetan zaintza hortaz nor arduratzen den. Bere irudiko, zaintzaileak nagusiki emakumeak dira kasu honetan ere.

Zaintzaz arduratzen diren emakumeen inguruko kezka ere azaldu zuten Gizarte Zerbitzuetatik, zaintzak lan gogorra suposatzen du, eta zaintzaile asko oso nekatuta aurkitzen dira, bai fisiko eta baita emozionalki ere.

Gizarte langilea: *Zaintzailearen zaintzaz ari garenean, ze benetan emakume-zaintzaile batzuk daude gaizki-gaizki, baina ez gara iristen emakume hauetara. Larrien dauden emakumeetara iristea da gehien kostatzen dena. Ikastarora joateko zaindu beharrekoa uztean ere errudun sentitzen dira.*

Gogoeta bera egin zuen herriko medikuak ere.

Medikua: *Zaintzaile askoK kristoren gainkargak dauzka, 24 orduak, “eske nola utziko det ba?” uste dut ez dagola ondo ikusita. Eta karga guztia betikoentzako, emakumeentzat, ez dakit noiz aldatuko den hori. Emakume asko oso lotuta daude. Haien osasun fisikoak eta psikologikoak ere sufritzen du.*

7. 2.3. Gizarte zerbitzuetako onuradunak eta hizketakideak

Aurreko bi ataletan eman diren datu guztiekin Ongintza arloko erabiltzaileen erretratu bat egin liteke. Hala ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu **onuradunen** eta **hizketakideen** arteko bereizketa egitea. Gizarte zerbitzuetako langilearekin egindako elkarrizketan argi eta garbi jaso da onuradunen abanikua anitzagoa den arren (gizon eta emakumeak, gazteak, haurrak eta abar.) hizketakide gehienak emakumezkoak direla, hau da, beraiek direla familairen ordezkariak.

Zerbitzuetara, normalean, onuradunak bakarrik inguratzen dira, baina norbaiten laguntza behar dutenean, edo familiakide batek bozeramale papeira hartzen duenean, funtzio hori gehienetan emakumeak (onuradunaren amak, emazteak, amaginarrebak edo alabak) betezen du. Kulturalki eta historikoki, emakumeek familiaren ongizatearen ardura hartzen dutenean generoaren arabera rolen banaketari eusten zaio.

Gizarte langilea: *Kudeaketa lanak egitera emakumezkoa etortzen da beti. Kasu konkretu batzuetan gizonezkoak etortzen dira. Dena den normalean bai zaintza eta bai gestioa emakumeek egiten dute.*

Gerturatzen direnak emakumeak izan arren, gehienetan ez dira soilik be-
raientzako laguntza eske joaten, hau da, asko dira familiaren “ordezkari”

gisa joaten direnak. Beraz, onura ez da indibiduala, familiarra baizik.

Bestalde, gizonezkoak hurbiltzearen zergaitien artean ere ezaugarri kulturak daude tarteko, esate baterako jatorria. Zaldibiako gizarte lagilearen esperientziaren arabera, Afrikan kontinenteko hainbat kulturetan, hala nola, magrebiarren artean, zerbitzu sozialetara gizona hurbiltzen da.

Gizarte langilea: *Hizketakideen artean sektore bakarra dago gizonak etortzen direna, larrialdi laguntzak, diru-laguntza eskatzera datozen magrebiarretan. Magrebiarretan gizonezkoak etortzen dira gestio mota honetarako eta gehiago kostatzen zaizu emakumeak ikustea, haiekin kontaktatzekoa... Ahalegin berezia egin behar duzu “etorri emaztearekin”.. Hasten dia etortzen, baina pixkanaka.*

Elkarrizketaturiko gizarte langileak argi dut gizarte zerbitzuetako bi aldeetan (langileak eta onuradunak) emakumeak direla erreferenteak.

Berdintasunerako bidean gizon-emakumeen arteko erantzukidetasuna sustatu nahi bada ezinbestekoa da gizonak ere ardura hauek partekatzen hastea. Ezberdina baita programa edo eskuhartze batzuk emakumeei bideratzea hauek jasaten duten bereizkeria konpondu asmoz, edo hainbat eskuhartzeren ardura emakumeen esku geratzea (seme-alaben jarraipena, adineko pertsona baten diru-laguntzen eskaera, eta abar.).

7. 3. EMAKUMEEN AURKAKO GENERO INDARKERIA

Gizarte zerbitzuen zereginen artean dago, baita ere, tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta ematea.

7. 3.1. Indarkeria zifratan

Genero indarkeriak Zaldibian zein zifra dituen aztertzeko gizarte langileak jasota dituen datuetan oinarritu gara. Beheko taulan ikus litekeen moduan, Zaldibian 2011an bi kasu eman ziren.

URTEA	ZALDIBIA
2011	2

Taula 38: Etxeko indarkeria eta genero indarkeria: Zaldibian, 2011. Iturria: Zaldibiakoko Ongintza arloa. Egilea: Farapi S.L.

Bi emakumeetako bat salaketa jarri zuen (eta ez zuen laguntza psikologikorik jaso), besteak aldiz, ez zuen salaketarik jarri baino jaso zuen laguntza psikologikoa.

7. 3.2. Emakumeen aurkako genero indarkeria eta Gizarte Zerbitzuak

Zaldibiako Udalean ez dago emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko udal protokolorik. Protokolo baten baitan ez bada ere, indarkeria jasan duten emakumeentzako honako zerbitzuak eskaintzen dira:

- Laguntza psikologikoa: Diputazioaren bitartez bideratzen den zerbitzua da.
- Laguntza juridikoa (gaur egun eten egin da).

Gizarte langileak onartzen du protokolo bat lagungarria izan daitekeela, baina protokolo hauek herri txikien errealitatera egokitu beharko liratekeela, izan ere herri batzuetan errekursoak mugatuagoak baitira beste batzuetan baino.

Gizarte langilea: *Protokolo lokalak ere abantailak dituzte, beste herri haundiagoetan egiten ari dira, herri txikietan ikusi beharko litzateke nola egin litekeen, sarritan errekursoak falta baitira, adibidez Zaldibin ez dago munizipalik.*

Dena den, protokoloaz gain, bestelako alderdi batzuk izan behar dira kontutan, hala nola tratu pertsonala:

Gizarte langilea: *Protokoloez gain tratu pertsonalarekin lotutako alderdiak landu behar dira, denborak, moduak, eta abar.*

Tratu txarrak jasan dituen emakumearentzat prozesua oso gogorra dela uste du gizarte langileak eta sistemak berak ondo funtzionatzen ez duen bitartean egoera hau ez dela aldatuko.

Gizarte langilea: *Tratu txarrak jasan dituen emakumearentzat kriston ahalegina da, sistema ez dago behar bezala engranatuia,*

egunen batean egongo da, baina momentuz ez dago. Tramite pila egin behar dira, oso konplikatuak da, hasiera batean ematen duene baina askoz konplikatua. Tratu txarren prozesua martirio bat da, benetako martirioa!!! Sistemak berak maltratitzen du emakumea. Prozesua astuna, nekagarria da, prozesu guztian emakumea epaitua sentitzen da... Salaketa jarrita ez da dana konpontzen, emakumea ez dago uste duten bezain babestua. Salaketak jarri behar dira noski, baina jakinda nun sartzen diren.

Gizarte langileak azken urteotan ez du genero indarkeriaren inguruko formakuntzarik jaso, hala ere gaiarekin oso sentsibilizatu dago.

Tratu txar egoerak identifikatzeko beste talde garrantzitsu bat osasun lagileena da. Zaldibiako medikuarekin izandako elkarrizketan aipatzen zigen, Osakidetzak baduela barnera begira kasu hauei aurre egiteko protokolo bat. Berari, Zaldibian lanean daraman denbora ez zaio emakumerik joan tratu txarrak jasaten dituela esanez, eta berak ere ez du zauririk edo golperik ikusi kontsultan. Dena den, berak aipatzen duen gisan, tratu txar fisikoez gain psikologikoak ere badaude eta hauek antzematea nekezagoa da.

Medikua: *Ez da errex, ezta hain errex, askotan ez dakizu nora-ino ote dan edo ez ote dan. Ez da horren errex. Gero ez gaude igual hain ohituak eta ezta kulturalki ere. Orain arte beste modu batera egon da izkutatuago. Eta ez dakit Zaldibin ere zenbatera-ino egon litekeen. Gainera hemen denek ezagutzen dute elkar eta horrek ere ba igual defentsa bat. Niri zuzenean norbaitek esatea ez zait tokatu. Ezta zera fisikoak ikustea ere. Gainera galdera egitea, ba askotan ere gogorra egiten da. bai egiteko eta baita erantzuteko. Tratu txar fisikoetan gauza bat da, baina psikologikoetan... Zaila da.*

Emakumeen aurkako indarkeria eskainitako atal honi amaiera emateko, tratu txar psikologikoen inguruko gogoetei jarraipena emanez, udaleko ordezkari politikoekin egindako lan-saioan plazaratutako kezka bat jaso nahi da. Hauen arabera, gazteen artean, tratu txar zantzuak ikus litezke, batez ere bikote harremanei dagokienean: neskalagunaren kontrola “non zaude?”

“zertan ari zara?” “norekin?”... Kezka nabarmena sortzen du gaiak udal ordezkarien artean, emakume gazteen gaineko kontrola egon litekeenaren susmoa baituta. Gaia sakonean aztertzeko beharra azpimarratu zuten, gazteen artean ematen diren genero harremanak ezagutzeko eta beharrezkoa izango balitz eskuhartze estrategiak planteatzeko.

Herriari begira, herria sentibilizatu asmoz, azken urteetan Azaroaren 25a, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ere ospatu da.

7. 4. LABURBILDUZ

Gizarte zerbitzuak Zaldibiako udalerrriak eskaintzen dituen oinarrizko zerbitzuak dira. Hemen jasotzen diren ondorioak aurreko atalen laburpen gisa ulertu daitezke.

Gizarte Zerbitzua

- Emakumeen egiturazko bazterkeria dela eta (soldata baxuagoak, lan baldintza okerragoak, erreprodukzio lanen ardura, genero indarkeria, eta abar.), emakumeek harreman asko dute bazterkeria hauek gainditzeko baliabideak (ekonomikoak, sozialak, eta abar.) kudeatzen dituzten gizarte zerbitzuekin.
- Gizarte zerbitzuen artean erabiltzaileen gehiengoa (banako gisa edo familiaren ordezkari gisa) emakumezkoak dira.
- Krisi egoeraren ondorioz gizarte laguntzen eskaera igo egin da, batez ere etorkinen artean eta lehenagotik egoera zailean zeudenen artean.
- Dependentsia legeak aldaketa nabarmena susposatu du gizarte zerbitzuetan (erabiltzaile gehiago daude egun) eta baita familia barneko zaintzaren antolaketan.
- Gizarte zerbitzuak azpiegitura urria du (batez ere langile kopuruari dagokionez), eskaintzen dituen zerbitzuetan genero ikuspuntua txertatzeko, eta aldi berean, genero sistemak sortzen dituen desabantailak gainditu ahal izateko.
- Bakarrik bizi diren gizonezkoak, bizirauteko arazoak dituzte (ezgaitasun kulturala dela bide) eta honen ondorioz Gizarte

zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuetako menpekotasuna handiagoa da emakumeena baino.

- Ez dago genero bortizkeriaren inguruko protokolorik.

- Gazteen arteko harremanetan indarkeria zantzuak egon litezkeenaren susmoa dago.

INDARGUNEAK

Gizarte langileak genero irakurketa bat egiteko gaitasuna du.

Ongintza batzorde bat dago eta bertatik lan egin liteke emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.

AHULTASUNAK

Ez dago programa sistematizaturik gizonak Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzeko, eta familia ardurak partekatzen hasteko.

Zaintza lanak eta familiaren ongizatearen ardura oraindik ere emakumeen esku geratzen dira.

Ez dago udal mailako indarkeria protokolorik.

KULTURA ETA KIROLA

Kultura, kultur-ekoizpena, literatura, musika, artea, festak, eta abar. oso esparru eraginkorra da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko. Udal mailako kultur politiketan genero ikuspegia txertatuz (genero lantzen duten jarduerak programatuz, emakumeen ekoizpen kulturalari oihartzuna emanez, festetan denen parte hartzea bermatuz, eta abar.) aurrerapauso garrantzitsuak eman litezke emakume eta gizonen aukera berdintasunean.

8.1. KULTUR BALIABIDEAK

Zaldibiako Udaletik 3 kultur errekurtsio kudeatzen dira:

1. Karrerane Kultur etxea

- Kzgunea
- Liburutegia
- Balioanizdun gela (pilates, yoga...)

2. Kultur-etxe zaharra

- Musika eskola
- Jolas gelak (umeentzako)
- Gela balioanitzak

3. Antzokia

8.2. KULTURA SAILEKO LANGILEAK ETA ARDURAK

Zaldibiako kultura sailean 2 pertsonen lan egiten dute, Kultur teknikaria emakumezkoa da (lanaldi osoa dauka) eta teknikari laguntzailea gizona (lanaldi erdia). Udaleko web gunean jasotzen denez kultura sailaren helburuak eta zerbitzuak ondorengoak dira:

Helburua

Udalak kultur arloan hainbat motatako ekintza eta ikastaroak antolatzen ditu urte osoan. Herrian kultura- eta arte-jarduerak aurrera eramatea du helburu: erakusketak, antzerkia, musika, dantza, tailerrak, arte plastiko eta eszenikoei buruzko ikastaroak, zinea eta ikus-entzunezkoak, lehiaketak, azokak, sustapen-jarduerak, jaiak etab.

Zerbitzuak eta ardurak (Kultur ekintzak)

Udalak berak edota Udaletik kanpo urtean zehar antolatzen diren ekintzen arduretan zeresan handia dauka. Gaiak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak eta giza baliabideak aztertu eta kontuan hartuz, jarraipen zuzena egiten du. Atal honetan sartzen dira musika- eta antzerki-ekitaldiak, aisialdirako ekintzak, jaialdiak, erakusketak... Horrek guztiak honako eginkizunak eskatzen dizkio Udalari:

-Kultur arloko programazioa proposatzea, sustatzea eta laguntza teknikoa ematea.

-Kultur Etxea zuzendu eta kudeatzea, baita bertan antolatzen diren ekintzez ardura hartzea ere.

-Kultur hornikuntza eta azpiegitura soziokulturalak garatzea, eta oro har, saila zuzendu, kudeatu eta planifikatzea.

-Egokitutako pertsonala zuzendu eta kontrolatzea, ekintza kulturalak antolatzeako azpikontrataturako enpresak barne.

-Herriko kultur taldeak koordinatu eta horiei laguntza ematea.

-Kultura-batzordean parte hartzea.

-Kultur taldeak: udalerriko kultur taldeekin hartu-emana mantentzea. Bestalde, antolatzen diren edota antolatu daitezkeen ekintzen ardura, programazioa, koordinazioa eta jarraipena egin eta horiek bultzatzea.

-Jaiak: Udalaren menpe dauden herri-mailako jaien antolaketa, jarraipena eta kontrola sustatzea (inauteriak, Santa Fe jaiak, San Isidro eguna eta abar). Horrez gain, udalerriko auzoetan antolatzen diren jaiak jarraipena egitea.

-Hori guztiaz gain, kultur arloak dituen premiak bildu, irtenbideak proposatu eta horiek bideratzeko laguntza ematea eta dagokion gestioa egitea egokitzen zaio¹³.

8.3. KULTUR BALIABIDEEN ERABILTZAILEAK

Erabiltzaile datuei dagokienez, *Zaldibiako Kultura Saisetik* antolatzen diren ikastaro eta jardueretan ez da erabiltzaileen datuak sistematikoki jasotzen¹⁴, Jarduera batzuetan egiten da, ikastaro batzuen kasuan esate baterako, baina ez da beti eta jarduera guztietan egiten. Datu hauek sistematizatu gabe izateak analisia moteltzen, erabiltzaileen datua topatu nahi baduzu izen emandakoen zerrenda kontsultatu behar baita, hauen sexua zehaztuz. Lehen pausoa emana dute, erabiltzaileekin zerrendak osatzen baitiztute, baina hau sistematikoki sexuaren arabera kontabilizatzea faltako litzaieke.

Sexukako erabiltzaileen inguruko datuak izanik, hainbat aspekturen inguruko informazioa lortu liteke; zein ikastarok duten arrakasta gehien emakumeen artean, zeintzuk gizonen artean, zein ordutegi aukeratzen dituzten batzuek eta besteek, ordutegi hauek nola harremantzen diren kontziliazio beharrekin, nor arduratzen den haurrak jardueretara eramateaz, eta abar. Beraz, datu hauek ez izatea hutsune nabarmena da.

Udal ardurei eskainitako atalean ikusi izan den moduan, Udalak maila ezberdinetan partehartzen du herrian egiten diren kultur ekintzetan. Batzuetan udala bera da antolatzaile nagusia (ikastaroak, udako ekintzak, eta abar.), beste batzuetan azpiegiturak uzten ditu (gazteentzako lokala, antzokiko rokodromoa, eta abar.), eta beste zenbaitetan diruz laguntzen ditu ekintzak (auzoetako festak, Ardiki eguna, etab).

¹³ Zaldibiako Udaleko webgunetik ateratako informazioa.

¹⁴ Berdintasun Legeak dioena bete gabe.

Elkartek jasotzen dituzten diru-laguntzei dagokienez, momentuz, hauek jaso ahal izateko ez dago genero ikuspegia txertatzeko baldintzarik (ekintzetarako gonbidatutakoen sexua, elkarteko kideena, etab.), dena den, aurrerantzean landu nahi den gaia da.

Kultur sailaren dinamika ulertzeko, eta beraien jardunean genero ikuspegia txertatzen ote duten ikusteko, herriko kultur dinamizatzailea elkarrizketatu da. Azterketa honen helburua ez da dinamizatzailearen eta batzordearen lana epaitzea hauen lanean genero ikuspegia txertatzeko gakoak bilatzea baizik. Zaldibiako kultur dinamizatzaileari dagokionez, genero gaitan oso sentsibilizatua dagoela aipatu liteke, eta bere lanean, lan kargaren mugak uzten dion heinean genero ikuspegia txertatzeko ahalegin guztiak egiten ditu, dena den, bere jarduna hobetzeko komendioak egin ahal zaizkio.

Zaldibiako kultur sailak kudeatzen diren zerbitzuak bitan banatu ditzakegu: Urte osoko ekintzak edo zerbitzuak eta jarduera konkretuak. Urte osoko zerbitzuen artean ditugu:

8.3.1. Liburutegia

Zerbitzu iraunkorren artean **liburutegia** da sistematikoki datuak sexuaren arabera jasotzen dituen bakarra. 2010eko datuei arreta jarri ezker, ikus liteke, liburutegiak 403 erabiltzailearen 3.851 bisita jaso dituela. Erabiltzaile hauetatik haurrak 105 izan dira, 296 helduak eta 2 elkarte. Hauetatik 147 gizonezkoak izan dira eta 254 emakumezkoak. Datuetan argi gelditzen da liburutegiko erabiltzailean gehiengoak emakumezkoa dela. Horretaz gain teknikariak liburutegiaren erabileraren inguruan egiten duen deskribapenean ere aipatzen du haurrak liburutegira doazenean amek laguntzen dietela, hala ere iruditzen zaio egoera pixkanaka aldatzen doala eta gero eta aita gehio daudela umeekin batera liburutegian.

Kultur teknikaria: *Gehien bat emakumeak dira. [...] Hurrekin gehien bat amak etortzen dia, baina geroz eta gehiago dira baita aitak, urteen poderioz asko aldatu da.*

Mailegu erabiltzaile kopuruari dagokionez egoera errepikatzen da emakumeak gehiengoak izanik, emakumezkoak 158 eta gizonezkoak 73 gehi elkarte bat, guztira 232.

8.3.2 Haurren jolas gela

Kultur etxe zaharrean kokatuta dago haurren jolas gela. Haurren gurasoak dira (guztiak amak), kultur dinamizatzailearen laguntzarekin, gelaren kudeaketaz arduratzen direnak. Momentu honetan gelaren funtzionamendua berrantolatze prozesuan murgilduta daude.

Erabiltzaileei dagokienez, hau da hurrei dagokienez, dinamizatzaileak dioenaren arabera, umeak, txikiak direnean, nahastuta eta kopuru beretsuan ibiltzen dira jolas gelan. Adinean aurrera egin ahala, mutilen kopurua gutxiagotu egiten da.

8.3.3. Gazte txokoa

Gazte txokoak urtebete inguru darama martxan. Herriko gaztetxoei bideratutako errekurtsu autogestionatua da. Bere kudeaketan, gazteen gurasoek, kultur dinamizatzaileak, zinegotziak, zinegotziaren aholkularia eta gazte-txoen ordezkariak parte hartzen dute, adin-tarte bakoitzoko bi ordezkari dituzte gazteek.

Gurasoak dira gazte txokoa iriki eta isteko ardura dutenak, baina barne dinamika bera gazteen esku uzten da hauen autonomia eta ardura garatzeko asmoarekin.

Ez dago erabiltzaileen inguruko datu zehatzik, herriko gaztetxo guztientzako dago irekia, baina ez da kontatzen zeintzuk joaten diren, ez eta zein den hauen sexua.

Udaleko ordezkari politikoeekin egin zen eztabaida taldean jaso zenez, daturik ez duten arren, bai ikusten dituztenak ezberdintasunak neskek eta mutilek egiten duten espazioaren erabileran. Hauen iritziz, neskak gehiago daude “egonean, kontutan...”, mutilak aldiz askoz aktiboagoak dira. Honen adierazle da lokalean izan dituzten istripu edo perkantzeen %95ean mutilak zeudela tarteko. Amitzeko aipatu behar da, Gazte txokotik Gaztetxera pasatzen direla Zaldibiako gazteak, jauzi honetan ere ezberdintasunak daude sexuaren arabera. Mutilak lehenago ematen dute pauso hau neskek baino (mutilek 15 urte inguruan, neskek urtebete edo bi beranduago).

8.3.4. Haurrentzako urte osoko jarduerak

Haurrei eskainitako urte osoko jardueren artean bi nabarmendu litezke: Musika eskola eta Bertso eskola. *Musika eskolara* doazen haurren inguruko daturik ez da lortu, baina kultur dinamizatzaileak dionenez, erabiltzaileen gehiengoak emakumezkoa (neskak) dira. Irakaslegoari dagokionez bi gizon eta hiru emakume direla aipatu behar da.

Bertso eskolak gora-behera dextente izan ditu azken urteetan. Egun ikasle bakarra dago, mutila, irakaslea ere gizonezkoa da.

8.3.5. Heldueltzako Urte osoko ikastaroak

Helduentzako urte osoko ikastaroei dagokionez urtero erabakitzen dira, jendearen interesen arabera. Aurten patinajea eta argazkigintza izan dira aukeratuak. Patinaje ikastaroan 16 pertsona daude, 10 emakume eta 6 gizon, argazkigintzan bestalde kopuruak parekatuak dira, 4 emakume eta 4 gizon.

TAILERRAE	MAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
PATINAJEA	10	4	14
ARGAZKIGINTZA	6	4	10
GUZTIRA	16	8	24

Taula 39: 2011/12 ikastaroetan parte hartu duten pertsonak sexuaren arabera.
Iturria: Zaldibiako kultur arloa. Egilea: Farapi S.L.

8.3.6. Jarduera konkretuak

Zaldibian urte osoko jarduerak egiteaz gain urtean zehar bestelako jarduerak ere egiten dira. Ondorengo taulan sailkatu dira.

Hilabetea	Jarduera kulturala	Ekintza	Antolatzailea
Urtarrila	Tertulia kulturala	Gonbidatu batekin tertulia	Beti Gazte Elkartea eta Udaleko kultura saila
Martxoa	Martxoaren 8ko ospalitzuna	Antzerki emanaldia	Udaleko kultura saila
		Emakumeen afaria	Damixelak
Apirila	Dantzari txiki eguna	Haurren euskal dantza emanaldia	Udaleko kultura saila eta Iztueta dantza taldea
Ekaina/ Uztaila	Udalekuak	Udako udaleku irekiak	Udaleko kultura saila
Abendua	Tertulia kulturala	Gonbidatu batekin tertulia	Beti Gazte Elkartea eta Udaleko kultura saila
Urtean hainbatean	Antzerkia	Antzerki emanaldiak	Udaleko kultura saila
Urtean hainbatean	Musika	Musika emanaldiak	Udaleko kultura saila

Taula 40: Zaldibian hilabetero burutzen diren kultur ekintzak, 2011. Iturria:Zaldibiako Kultura Saila. Egilea: Farapi S.L.

Hemen zerrendatu diren ekintzetan ere ez dago erabiltzaile edo kontsumitzaile datu zehatzik. Dena den, kultur dinamizatzaileak elkarrizketan kontatutakotik abiatuta ondorengo aipatu liteke:

- Beti Gazte antolaturiko tertulia saioetan gonbidatuak gizonetzkoak izaten dira normalean, entzuleen artean aldiz gehiengoak emakumeak izaten dira.
- Martxoaren 8an antolatzen den antzerki emanaldira nagusiki emakumezkoak joaten dira.
- Dantzari txiki egunean ere neskatilak dira protagonista. Oro har dantza taldeetan, baita Iztueta dantza taldean ere neskak izaten dira gehiengoak eta honek bere isla du dantzari txiki egunaren ospakizunean. Iztueta dantza taldeko hiru irakasleak ere emakumezkoak dira.
- Urtean zeharreko antzerki emanaldietara emakume gehiago joaten da.
- Musika emanaldietako entzuleen artean gizon emakume kopurua orekatuagoa da. Hori bai, eszenatoki gainean gizonak izaten dira nagusi.

Dinamizatzailearen ezagutzak lehen hurbilpen baterako balio badu ere, ezinbestekoa da pixkanaka erabiltzaile datu hauek sexuaren arabera banatuta jasotzeko ohitura hartzen joatea. kultur kontsumitzaileen profila ezagutzeko. Profila ezagututa kultur programak hauetara egokitu litezke.

Orain arte ikusitakotik argi ondorioztatu liteke, Zaldibiako kultur kontsumitzailearen profila emakumezkoa dela.

Halaber, kulturaren munduan paradoxa garrantzitsu batekin egiten dugu topo, kontsumitzaileen artean gehiengoak emakumezkoak diren arren, kultur ekoizle gehienak gizonetzkoak dira. Paradoxa hau argitara ekartzeko Laura Freixas idazleak Espainiar Estatuari buruzko hainbat datu bildu zi-

tuen artikulu batean, jarraian dator artikulu horren atal bat:

“Aurkeztu berri den ikerketa baten arabera, 2000-2006 urteen artean espainiar estatuan egin diren filmeetatik, emakumezkoek zuzendutakoak, %7a soilik izan dira. Espainian salduen diren liburuen zerrendan, edozein astetan (ABC, 29-3-08), emakume bakarra dago fikzioaren atalean (%10) eta bi ez fikziokoe-tan (%20). Kultur Ekintzarako Estatu Taldeak 2002-2005 tartean antolatutako 43 erakusketa indibidualetatik, %5ak soilik zuen emakumezkoen sinadura. Komunikabideetan, langileen artean %46a bada ere emakumezkoa, soilik %24a dago zuzendaritza postuetan. Antzerkigintzan, 2008ko Max sarietarako hautagaien artean gutxiengoa da emakumezkoena, %25a zuzendarien kate-gorian, eta %19a egileenean.”¹⁵

Euskal Herrira etorritik, euskal ekoizpen kulturalaren erakusleho den Durangoko Disko eta Liburu azokaren azterketa egin zuen 2006. urtean Bilgune Feministak. Urte hartako emaitzek nabarmen utzi zuten emakume eta gizonen arteko aldea. Argitaratu ziren nobedadeen egileetatik %78 gizonezkoenak izan ziren, gainera, emakumezkoen %22tik lan bat bera ere ez zen jendaurrean aurkeztu.

Kultur programa prestatzerakoan genero ikuspegia txertatzeaz ari garean ez gara emakumei bakarrik zuzenduriko ekintzak pentsatzeaz ari, programaturiko ekintzek genero rolak indartzen edo eraldatzen dituzten ikustea da helburua.

Kultur kontsumitzaileen sexuaz gain garrantzitsua da kultur ekoizleena (idazle, artista, zinema zuzendari, musikari, eta abar.) ere kontutan hartzea programa diseinatzerakoan. Atal honen hasieran aipatu denez, **emakumeen kultur ekoizpenak** ia ikustezinak dira, beraz, kultur programan espezifiko-ki emakume artistei toki bat gordetzea ikusezintasun hori gainditzeko, eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, bideetariko bat izan liteke. Momen-tuz Zaldibian ez da horrelakorik egiten.

8.3.7. Kultur ekintzak eta bateragarritasuna

Kultur arlotik landu litekeen beste gai bat **bateragarritasunarena** da. Kul-turatik herrira begira antolatzen diren ekintzetan, inoren beharra duten pert-sonen zaintzaileen ordutegiak gogoan izatea garrantzitsua izango litzateke hauek ere kultur jardueretan parte hartzeko aukera izan dezaten. Dinami-zatzaileak aipatu zigunez, momentuz ordutegiarena ere ez da modu siste-matikoan kontenplatu, partehartzaileei eta ikastaroa eman behar duenari egokien etortzen zaion orduan egiten dira ekintzak.

Bateragarritasunarekin jarraituz, nahiz eta zehatz-mehatz ez helburu ho-rrekin sortu, uda partean haurrentzako Udaleku Irekiak egiten dira Zaldi-bian. Udalekuak oso errekurso baliagarria dira familiek bizitza pertsonala eta lana uztartzeko aukera izan dezaten. Udaleku irekiak 3tetik 15 urte arte prestatuta daude. 2011ko udan 3 eta 15 urte bitarteko 206 haur eta gazte bildu ziren, hauetatik 104 neska eta 102 mutilak. Umeen jarduna dinami-zatzeko 13 begirale kontratatzen dira, 2 mutil eta 11 neska.

Udalekuei dagokienez, jaso behar da 2010. urtean, Foru Aldundiko Berdin-lagun programako diru-laguntza bati esker begiraleek hezkidetzak ikastaro bat jaso zutela. Parte hartu zutenek, oso modu baikorrean baloratu zuten ikastaroa. Begiraleak hezkidetzan formatzea ezinbestekoa da haurrak auke-ra berdintasunean hezi nahi badira.

Bateragarritasunarekin batera lotuta dagoen beste gai bat zaintza eta hau-rraren ardura dago. Kultur teknikariak adierazi digun moduan, oraindik ere umeei harremanak dauden jarduerak guztietan amak presenteago dau-

¹⁵ <http://www.laurafreixas.com/freixasarticulos21.htm>
[2009ko Irailean kontsultatua]] Jatorrizko gaztelaniazko itzulia.

de aitag baino. Hau da, kultura kontsumoan emakumeak nagusi dira, baina umeentzako kultura edo aisialdi momentu eta guneak emakumeek antolatzen dituzte, bai espazioaren ardura dagokionean edo baita umeen zaindu behar dituztenean.

Kultur teknikaria: Jolas geletan umeak nahastuta, eskolako kopuruaren arabera. Gurasoak dira superbisioaz arduratzen direnak, elkarlan hau antolatzen ari dira. Kultur dinamizatzailleak eta gurasoak (denak amak) dira prozesu horretan parte hartzen dutenak [...] Gaztetxoek lokala: hor ere gurasoak arduratzen dira atea itxi eta irikitzeaz eta hor ere emakumeak dira guztiak.

Amaitzeko, kultura sailak herriko elkarteekin harreman handia duela ikusirik, dirulaguntzak emateko, azpiegiturak kudeatzeko, ekintzak elkarlanean antolatzeko eta abar., hauei ere beraien jardueretan genero ikuspegia txertatzeko gomendioak egin diezazkieke (hizlariren bat gonbidatzen dutenean emakumeak ere gonbidatzea, irudi eta hizkuntza ez sexistak erabiltzea, eta abar.)

8.4. FESTAK

Atal honen sarreran aipatu den moduan kultura sailaren beste arduretariko bat herriko festak antolatzearena da. Festak fenomeno garrantzitsua dira herri batentzat. Dimentsio ludiko, festiboak, erritualak eta abar. ditu eta herria-nortasuna indartzeko balio dute. Festen bitartez herria ezagutzera ematen da, herriaren irudi onena plazaratzeko saiakera egiten da.

Festen ezaugarri guzti hauek medio, giza harremanak eta gizarte egiturak ikusteko eta ikertzeko espazio ezin hobe bilakatzen dira. Festak genero ikuspegitik aztertzea ezinbestekoa da hauetan genero estereotipoak indartzen diren edo egiturak iraultzen diren ikusteko.

8.4.1. Zaldibiako festak edo/eta egun bereziak

Datorren taulan laburbiltzen dira Zaldibian ospatzen diren festa edo egun bereziak:

DATA	FESTA	ANTOLATZAILEA
Maiatzak 15	San Isidro eguna	
Pazko bigarrenean	Saturdiko festa	Udala
Ekainak: San Joan Bezperan	Alamartxo gaua	
Uztailaren 2. hamabostaldia	Gazte festak	Gazte asanblada
Uztailleko 2. eta 3. larunbatean	Txamarretzeko festa	
Urriak 6	Santa Fe (herriko festa nagusiak)	Festa batzordea
Urriko azken igandea	Ardiki eguna	Ardiki Udalarekin elkarlanean
Abenduak 4	Santa Barbara eguna Aiestaran erreka auzoan	

Taula 41: Zaldibiako festak, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.

Festen antolaketari eta partehartzeari buruzko datuak kultur dinamizatileen elkarriketatik eta udal ordezkarien eztabaida taldetik atera dira. Bestalde, Santa Fe jaiei dagokienean azken urteko programa eskuratu da eta programa honen azterketa orokorra egin. Festen inguruko azterketa sakona egiteak beste diagnostiko bat eskatuko luke, baina Santa Fe jaien inguruan egindako lehen azterkak, festak sexistak izan ez daitezen kontuan izan be-

harreko alderdien deskribapen bat egiten lagun dezake.

San Isidro Eguna: Baserritarren eguna ospatzeko bazkari bat egiten da. Bazkarira doazenen artean gehiengoa gizonak dira. Emakume batzuk ere joaten dira.

Saturdiko Festa: Pazko bigarrenean ospatzen da erromeri kutsuko festa hau. Trikitixa, bertsoak eta herri kirolak dira festaren ardatzak. Auzoko emakume eta gizonezko edadetuei ere oroigarri bat egiten zaie eta dantzarien aureskua eskaintzen zaie. Kultur dinamizatzailearen arabera, festa bera nahiko maskulinizatua da.

Auzo bazkaria egiten da.

Alamartxo gaua: San Joan bezperan Zaldibian, beste herrietan egiten den moduan, herriko plazan ospatzen da udako solztizioa. Plazan afari herrikoia egiten da eta bertan norberak ekarritako afaria edota Zubi buru elkarteak prestatzen duen marmitakoa, festa giroan afaltzen da. Ondoren, suaren inguruan, herriko dantzariak eta herritarrek prestatutako festa ospatzen da.

Gazte Festak: Uztailaren bigarren hamabostaldian ospatzen dira, hiru egunez. Bost urte badira ospatzen direla, eta udako giro onaz baliatuz, erabateko festa herrikoia izaten dira. Gazte festak, Gaztetxetik, Gazte Asanbladatik antolatzen dira. Programa osatzerakoan oso kontutan izaten dute berdintasunaren gaia eta zenbait alderdi zaintzen saiatzen dira, hala nola sexuen arteko presentzia orekatua. Azken urteko programa ondorengoa izan zen:

- Ostegunean: Txupinazoa: Zaldibiako bi haurrek bertsoa abestu zuten (neska bat eta mutil bat). Festei hasiera emateko idatzia irakurri zen (neska bat eta mutil bat). Arkakuxoren jeitsiera, triki-poteo buruhaundiekin. Ondoren Patata tortila eta entsalada txapelketa. Epaimahaian bi gizon eta bi emakume egon ziren. Jubilatuekin kafetertulia ere egin zen.
- Ostiralean: Frontenis mixto txapelketa, sagardo dastaketa eta kontzertuak.

- Larunbatean: Bazkaria, jolasak, kale animazioa eta kontzertuak.

Gazte Festak antolatzeko lanak herriko gazteen artean banatzen dira. Gazte Asanbladako kideek argitu zutenez lan txandak osatzen dira eta txanda bakoitza adin-tarte bati dagokio, beraz, neska eta mutil nahasian aritzen dira lanean. Gazte Asanbladako arabera ez da sexuaren arabera lan banaketarik ematen.

Txamarretxeko festa: Uztaileko bigarren edo hirugarren larunbatean ospatzen dira. auzo hau garai bateko artzain eta 'errekardera' askoren bizitokia izan da. Egun bateko festa izaten da. Festa antolatzen duen batzordea mixtoa da. Programazioari dagokionez pintxoek eta auzoko familien afariak dute pisu gehien. Afaria Arrese jatetxean egiten da.

Ardiki eguna: Urriaren azken igandean. Aurrez aipaturiko hesteki prezia-tuari, eta orokorrean artzaintzari, gorazarre egiten zaio. Mondeju eta Aralarko ardi gaztaren lehiaketa eta beste zenbait erakustaldi antolatzen da, eta eguerdian, mondejuz, ardi haragiz eta gaztaz hornituriko bazkari eskaintzen da. Ardiki eguna antolatzen duen batzordea autogestionatua da eta partaide guztiak gizonezkoak dira. Udalak diruz laguntzen du egunaren antolaketa. Kultur teknikariaren iritziz, artzantzaren inguruko festa izaki nahiko maskulinoa da. Mondeju lehiaketan emakume askok parte hartzen dutela ere aipatzen du. Mondeje lehiaketan epaimahikidei mondejuak probatzen emateko eta emakumeak dira zerbitzari lana egiten dutenak, rolak birsortuz. Egun horretan urtero bertsolariak gonbidatzen dituzte, gehientan gizonezkoak izan dira.

Aiestaran erreka auzoko festak: Aiestaran erreka auzoan, Santa Barbararen irudia dago eta abenduaren 4ean, -Santa Barbara egunean, herrian meza izaten da. hilaren 8an, berriz, auzoan eta Lazkaoetxean auzotarren festa egiten da. Egun horretan auzoko edadetuenari oparitxo bat egiten zaio. Santa Barbara eguneko mezaren ondoren bazkaria egiten da. Bazkalostean karta txapelketa egiten dute, gizonek musuean eta emakumeek bestelako jokoetan. Bereiztuta egitea haien erabakia izan da.

Santa Fe: Urrian ospatzen dira eta hauek dira Zaldibiako festa nagusiak. Batzorde baten bitartez antolatzen dira. Batzordea irekia da eta ordezkari politiko eta teknikariek gain herriko hainbat elkartek hartzen dute parte: guraso elkarteak, jubilatuenak, gazte asanbladak, etab.


Santa Fe jaien generoaren arabera azterketa egiteko 2011ko programa aztertuta da. Programaren azterketan hainbat alderdi izan dira kontutan:

- Programaren diseinua: hizkuntza eta irudiak.

- Programaren edukia: Zein ekintza mota dauden, zeintzuk diren ekintza horietan parte hartzen dutenak, zein den hauen sexua, etab¹⁶.

Programaren diseinua: Diseinuari dagokionean, aipatu behar da, bai hizkuntza aldetik eta baita irudi aldetik oso zaindua dela. Ez da hizkuntza sexistarik erabiltzen eta irudietan emakume eta gizonen presentziaren arteko oreka oso ondo mantentzen da. Programaren beraren portadan (beheko argazkian ikus litekeen moduan) neska-mutilak ageri dira. Gainera, Iztueta Dantza taldeko kideak ageri direnez (gehienak neskak), nesken presentzia oso nabarmena da.

¹⁶ Informazio hau ahal izan denean soilik eskuratu da, hainbat kasutan ez baita ekintzen protagonisten edo ikusle goaren sexuaren arabera daturik.



Gainontzeko orrietako argazkietan ere neska-mutilak ageri dira (haurren ekintzetan, disfraz egunean, herri bazkarian eta abar.). Hizkuntzaren erabilera ere egokia da.

Amaitzeko, programaren amaieran 2010eko festetako argazki bilduma ikus liteke. Argazki hauen aukeraketan ere emakume eta gizonen presentziaren arteko oreka mantendu da. Gainera, emakumeak inbisibilizatuta dauden esparruetan (herri-kiroletan esaterako) erretratatu dira ikustezintasun hau gainditze aldera. Hona hemen adibide bat.



Programaren edukiak: Programatutako jarduerak, ekintza motaren arabera sailkatuko dira, eta informazioa dagoenean, hauen protagonisten sexua jaso da.

		EMAKUMEAK	GIZONAK	SEXUA ZEHATU GABE
MUSIKA EKITALDIK	Iztueta dantza taldea			-
	Gaurdi txaranga	-	11	
	Imuntzo eta Beloki	-	2	
	Herriko trikitilariak			-
	Kuxkuxtu txaranga	2	5	
	Zaldibiko trikitixa eskola			-
	Garraxi taldea	2	3	
	Play-back txapelketa			-
	Ordiziako errondaila			-
	Triki-poteoa			-
	Garxot-ekin kantu herrikoiak			-
	Manillares Iturriaga	-	5	
	Ingo al deu	-	4	
	Jun da jo txaranga	-	11	
	Trikizio	-	4	
BERTSOLARIAK	Nerea Elustondo eta Iker Zubeldia	1	1	
KIROL JARDUERAK	Zezenak eta pottokak			-
	Eskuzko pilota partidak: Nazabal-Elustondo Larrea-Oria Goikoetxea-Sukia Mendizabal I- Galartza VI Mikel Goñi- Goñi III	-	10	
	Gaztetxo eta kadeteen pelota: Irastorza-Elizegi Garmendia-Oria	-	4	
	Herri-Kirol desafioa			-
	Nesken arteko sokatira Zaldibia-Anoeta	16	-	
	Zaldibiko I. Herri Lasterketa (helduentzat)			-
	Zaldibiko I. Herri Lasterketa (haurrentzat)			-
HAURRENTZAKO EKINTZAK	Oreka Zirko Eskola			-
	Haurrentzako Jolasak			-
	Haurren mozerro eguna			-
BAZKARI-AFARI HERRIKOIAK	Mondeju jana			-
	Jubilatuentzat hamaiketakoa			-
	Gazte Bazkaria			-
	Bazkari herrikoia			-
	GUZTIRA	21	60	17

Tabla 42: Zaldibiako Santa Fe jaietako programaren azterketa, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.

Taulan egin den lehen azterketa honetan, agerian geratzen da 2011ko festetan programatutako ekintzen protagonistei dagokienean, oraindik ere, ezberdintasun nabarmenak daudela emakume eta gizonen kopuruan. Musika ekitaldiek eta kirol jarduerak pisu haundia dute programan eta bi esparru hauek oraindik ere oso maskulinizatuak daude. Kirolari dagokionean bi aipamen egin litezke. Lehenik, emakumezkoen sora-tira erakustaldia, emakumeek herri kiroleetan egin duten lanaren aitortpena dela aipatu behar da. Zaldibian, herri-kiroleetan emakumeen presentzia bermatzeko ahalegin berezia egiten da.

Bestalde, 2011. urtean lehen aldiz antolatu zen Herri Lasterketa. Herri Lasterketa iragartzen zuen kartelean nahita erabili ziren emakumezkoen irudiak, hauei parte hartzeko gonbidapen zehatza eginez.



Hauek izan dira Zaldibiako festen inguruan jaso diren datuak, festen inguruko diagnostiko sakonagoa egin beharko litzateke, zeharka aipatu diren hainbat alderditan sakonduz. Dena den, festen izaera eta dinamika parekidea izateko hainbat gomendio ematen dira. Ondorengo faktoreak izan beharko lirateke kontuan:

Programa: Zein jarduera mota prestatzen diren, nori bideratuak, zein diren protagonistak, eta abar.

Antolakuntza: Garrantzitsua da bai festa batzordean eta baita jarduerarako bakoitzeko antolakuntzan gizon-emakumeak egotea, baita batzuk eta besteek hartzen dituzten ardurak genero rolak gainditzea ere. (Zaldibiako jai batzordean emakumeen parte hartzea handitzeko estrategiak pentsatu beharko lirateke).

Indarkeria sexista: Festetan ohikoak izaten dira gradu ezberdinetako eraso sexistak (eraso berbalak, ukituak, bortxaketak, eta abar.).

Herriko festen azterketan, partehartzaile edo protagonistez gain, oso datu garrantzitsua da antolakuntzan dihardutenena. Jai batzordeetan gizon eta emakumeen partaidetza parekidea pauso garrantzitsua izaten da berdintasunean oinarritutako festa batzuk egiteko.

Festen antolakuntzan Zaldibian emakume eta gizonek duten presentzia ikusteko akta edo daturik ez da eskuratu beraz honen inguruko ondoriorik ezin da atera.

8.5. KIROL BALIABIDEAK

Kirol baliabideetan bi azpimarra daitezke:

1. *Gimnasioa*
2. *Frontoia*

8.6. KIROL SAILEKO LANGILEAK ETA ARDURAK

Kultur dinamizatzailerak da, herriko kirol elkarteekin elkarlanean, Zaldibiako kirol dinaminak antolatzeren arduraduna.

Kirol sailari dagokionez, ondorengoak dira helburuak eta ardurak¹⁷

Kirol ekintzak: Udaleko Kirol Zerbitzutik, hainbat kirol jarduera eta txapelketa antolatzen ditugu urte osoan. Halaber, herriko eragileak antolatzen dituztenetan parte hartzen dugu, azpiegiturak taldeen esku jarritz edo beste hainbat modutan lagunduz.

Kirol elkarteak: udalerriko kirol taldeekin hartu-emana mantentzen dugu. Urtero diru laguntza batzuk bideratzen dira talde hauei laguntzeko.

Kirol instalakuntzak: arlo honetan, herritarrei kirola, beraien kasa edo modu antolatuan, egin ahal izateko instalazio egokienak eskaintzea da gure helburua.

8.7. KIROL JARDUERAK ETA BALIABIDEEN ERABILTZAILEAK

Aurreko atalean aipatu den gisan, Udalak hainbat kirol jarduera eta txapelketa antolatzen ditu. Zaldibiako kirol jarduera hainbat azpi-ataletan sailkatu dezakegu:

8.7.1. Haurrentzako kirol eskaintza

Zaldibiako haurren kirol praktika gehiena eskolari lotua da. Haurrak txikiak direnean multi-kirola egiten dute eskolan, neska eta mutilak nahastuta. Adinean aurrera doazen heinean nesken eta mutilen ligak bereizten hasten dira. Hezkuntzaren atalean jaso den moduan, haurren entrenatzaileak guraso edo ikasle ohiak izaten dira. Funtzio hau nagusiki gizonek betetzen dute.

Pilota eskolari dagokionez, DBHra iritsi bitartean neska-mutilak biak batera ibiltzen dira. Behin 16 urte beteta, pilotan jarraitu nahi duenak federatu egin behar du. Gaur gaurkoz Zaldibian federatuak daudenak guztiak mutilak dira. Denbora luzez neska bat egon da palan federatua, baina ikasketak egi-tera kanpora joan zenean utzi egin zuen.

Uda partean haurrei bideratutako beste kirol eskaintza bat ere egiten da Zaldibiako Udaletik; Eskola Kirola Sustatzeko Kanpaina. Ondorengo taulan ikus litezke 2011ko erabiltzaile datuak:

¹⁷ Zaldibiako Udaleko webgunetik ateratako informazioa.

JARDUERA	Izena eman dutenen kopurua		Partaideeen adina
Hurren jarduerak	114		3 urtetik 11 urtera
	Neskak:53	Mutilak:61	
Gaztetxoek jarduerak	25		13, 14, 15 urte
	Neskak:10	Mutilak:15	
Tenisa	8		7-12 urte 7-8(1) 10-11 (3) 11-12 (4)
	Neskak:5	Mutilak:3	
Patinajea	11		7-11 urte 7-8(6) 8-9 (5)
	Neskak:7	Mutilak:4	
Piraguismoa	27		8-12 urte 8-9(10) 9-10 (4) 10-11 (6) 11-12 (3) 12-13 (4)
	Neskak:12	Mutilak:15	
Aerobic	8		10-12 urte 10-11 (3) 12-12 (5)
	Neskak:8	Mutilak:-	
Hipika	13		9-12 urte 8-9 (5) 10-11 (6) 11-12 (2)
	Neskak:9	Mutilak:4	
GUZTIRA	206		
	Neskak:104	Mutilak:102	

Taulan ikus litekeenez, parte hartzaileen kopuru osoan apenas dago neska-mutilen arteko ezberdintasunik, 104 dira neskak eta 102 mutilak. Jarduera motaren arabera ere ez dago ezberdintasun aipagarriegirik aerobic-aren kasuan izan ezik. Aerobic-ean guztiak dira neskak.

8.7.2. Helduentzako kirol eskaintza (udaletik antolaturiko jarduerak)

Udaleko kirol sailak, hainbat kirol zerbitzu eta jarduera eskaintzen dizkie herritarrei. Dinamizatzaileak aipatzen duenez, ondorengoak dira momentuan martxan daudenak:

- Aerobic: Guztiak emakumezkoak dira, irakaslea barne.
- Mantenimentuko gimnasia: Guztiak emakumezkoak dira, irakaslea barne
- Sauna zerbitzua: Erabiltzaile gehienak gizonezkoa dira, baina orain emakume marokiarren talde bat ere hasi da zerbitzu hau erabiltzen.
- Frontoia: Palan ibiltzeko erabiltzen da nagusiki. Erabiltzaile gehienak gizonezkoak dira.

Ikus litekeen moduan ez dago erabiltzaileen inguruko datu zehatzik, teknikariaren ezagutzetan oinarritutako datuak ematen dira. Kirol praktikaren erradiografia osoa egiteko ezinbestekoa izango litzateke datu hauek sistematikoki jasotzea partehartzaileen sexua kontutan izanik. Gainera, sexuaren aldagaia beste aldagai batzuekin gurutzatzeko aukera izango balitz (jatorria, adina, etab.) kirol praktikaren ezagutza sakonagoa lortuko litzateke.

8.7.3. Helduentzako kirol eskaintza (kirol elkarteetatik bideratutako jarduerak)

Zaldibiako kirol praktikaren antolakuntzan garrantzi handia dute herriko kirol elkarteek. Hauek dira elkarte horiek:

Lardizabal Areto Futbola¹⁸

Aspaldidanik Areto Futboleko taldeak egon izan dira Zaldibian. Talde hauek adinez sailkaturik daude, eta infantil maila bitarte, Gipuzkoa mailako Eskola Kiroletan antolatzen den txapelketan parte hartzen dute.

1995. urtetik aurrera, Areto futboleko Federazioak antolatzen dituen Gipuzkoako txapelketetan Zaldibiako taldeek ere parte hartzen dute. Federatu maila honetan lehiatzen hasi zen lehenengo taldea herriko neskekin osatutakoa izan zen. Geroztik hainbat mailatan neska eta mutil talde federatu gehiago sortu dira.

Areto futbol talde hauetan lanean zenbait herritar ibili dabil eta herriko frontoian aritzen dira entrenamenduak eta partiduak egiten.

Areto futboleko emakume taldea urtetan egon da Zaldibian eta teknikariak eta lardizabal elkarteak ordezkariak aipatu zuten, oso ondo funtzionatu izan du. 2010. urtean Federaziotik abisatu zitzaion Gipuzkoa mailan ez zegoela beste emakume talderik, beraz liga bertan behera geratu zen eta Zaldibiako taldeak ere eten egin zuen bere jarduna. Gipuzkoa maila areto futbolean denbora gehien zerraman neska taldea zen. 2011. urtean taldea berriz indartzeko saiakerak egin dira, baina momentuz ez dute fruiturik eman.

Gailurrerantz Mendi Elkartea¹⁹

Gailurrerantz Mendi elkartea 70. hamarkadaren hasieran sortu zen, herriko mendizaleen eta Guraso Elkartearen ekimenez. Garai hauetan Enirio-Aralar

Mankomunitatearen lurretan dagoen Oidui txabola Gailurrerantz Mendi Elkartearen esku geratu zen eta aterpetxe gisara egokitu zen.

Urteetan Gailurrerantz Mendi Elkartek hainbat irteera eta aktibitate egin ditu; ume, gazte, heldu eta zahar denak batera ibili dira. Gaur egun ere urteko programazio bat egiten da eta egutegia kaleratzen da.

Lehen esan den moduan Oidui txabolaren gestioa eramaten du eta urtean zehar bertara jende asko hurbiltzen da.

Herriko elkarteekin egin zen eztabaida taldera Gailurrerantz elkarteak zuzendaritzako bi ordezkari etorri ziren, biak gizonezkoak. Egun zuzendaritzan gizonak daudela argitu zuten, baina haien jarduna herritar guztientzako irekia dela (gazte, haur, adindun, gizon, emakumeentzat). Antolatzen dituzten ekintzetako partehartzaileak, sexuaren arabera baino gehiago bereizten omen dira mendian ibiltzeko duten esperientziaren edo gaitasunaren arabera. Irteerak antolatzen dituztenean, irteeraren zailtasunaren arabera partehartzaileen profila ere aldatu egiten da.

Almitza Segala Elkartea²⁰

Denborak eskuetatik alde egiten duen garai hauetan, une batez atzera begira jarri nahi du Almitza Segala Elkartea. Teknologia eta makinaria azkarrak sortu aurretik, mundu osoan eta halaber Euskal Herrian, lanabesak ezinbesteko egitea zuen. Honen haritik, gaur egun, herri kirolek honen isla zuzena eskaini digute.

¹⁸ Zaldibiako Udaleko webgunetik ateratako informazioa.

¹⁹ Zaldibiako Udaleko webgunetik ateratako informazioa.

²⁰ Zaldibiako Udaleko webgunetik ateratako informazioa.

Euskal Herrian gaurdaino oihartzun handia izan dute mota honetako ekitaldiek, nahiz eta egun, hauetariko zenbait galtzen ari diren.

Euskal Herriaren eta kultur ohiturenganako maitasunak jarduera hauek guztiak bizirik mantentzeko ahalegina egitera daramat Almitza Segararekin.

Almitza Segararekin, bere lehen hastapenak 1996. urtean izan zituen, Alemaniako Baso Beltzeko Segararekin Txapelketaren inguruan, Enzklösterle herrian hain zuzen ere. Lehenengo hartu-eman haren ondorioz, Almitza Segararekin beste zenbait herrialdeetan parte hartzeko ateak zabaldu zitzaizkion, beraiei kultur ohituretan gizalditan eguneroko oia eskuratzeko erabilitako tresna honek bizirik baitzirauen. Ordutik hona, Almitza Segararekin ibilbidea luzea izan da, hainbat txapelketa eta erakustalditan parte hartu eta antolatu duelarik. Elkarrekin ekitaldi hauetan parte hartzailea izateaz gain, hots, kirol jarduerak baitu xedetzat, azpimarragarria da, euskal kulturaren erakusgarri dela bai atzerrian, kultur izaera anitzen topagune paregabeak baitira Segararekin Txapelketa hauek, eta baita Euskal herrian.

Emakumeen partehartzeari dagokionez, Almitza Segararekin ahalegin berezia egiten da Segararekin txapelketa eta ikuskizunetan emakumeak egoteko. Zaldibian antolatu dituzten azken erakustaldietan beti gonbidatu dituzte emakumezkoak.

Txirrindulari taldea

Talde berria da herrian. Momentuz txirrindu froga bat antolatu dute. Federazioaren bidez egin da eta gizonezkoiei zuzendu zaie.

8.8. LABURBILDUZ

Kulturaren eta kirolaren arloak emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko aukera asko eskaintzen dituen arren, Zaldibiako Udalean, momentuz, genero ikuspegia ez da sistematikoki kontutan hartzen:

KULTURA

- Erabiltzaile datuak ez dira sexuaren arabera jasotzen ekintza guztietan.
- Kultur dinamizatzailerik oso sentsibilizatua dago berdintasun gaietan.
- Kultur kontsumitzaileen artean emakumezkoak dira gehienak.
- Kultur kontsumitzaileak haurrak direnean, normalean, amak dira hauen zaintzaren ardura hartzen dutenak.
- Ez da herriko festen generoaren arabera azterketarik egiten.
- Kultur ekintzen protagonistak gizonezkoak dira gehienak.

KIROLA

- Kirolari dagokionez ez da genero diagnostikorik burutu.
- Kirol Diagnostikorik gabe zaila da kirol munduaren ezaugarri sexistak ekiditea.
- Herriko Kirol elkarteek garrantzi handia dute kirol dinamikaren antolaketa eta garapenean. Kirol elkarteetako arduradunek, sentsibilizatuta egon arren, ez dute genero gaietan formakuntzarik.

INDARGUNEAK

Kultur dinamizatzailerak oso sentsibilizatuta dago genero gaiekiko.

Kultur dinaminaka nabarmena da herrian.

AHULTASUNAK

Jaietako genero diagnostikorik ez da egin.

Kirol diagnostikoa egin gabe dago.

Datuak ez daude sexuka jasota.

HIRIGINTZA

EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. planean jasotzen den moduan, orain arte, “gure herri eta hirietako lurraldearen eta hirigintzaren antolamendua batik bat produkzioaren arloko antolamenduak eragindako premien arabera egin da; arlo hori gizonei esleitu izan zaie, eta emakumeak, orain gutxi arte, baztertuta egon dira. Hori horrela izanik, kasu askotan, eremu horretako politketan eta jardunetan ez dira aintzat hartu emakumeen premia eta interesak, ezta ugalketa-eremuak eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteak eragindako premiak ere”²¹. Egoera honi buelta emateko ezinbestekoa da herri mailako hirigintza politikan ere genero ikuspegia txertatzeko estrategiak abian jartzea.

²¹ EMAKUNDE, *Emakumearen Euskal Erakundea (2006)*, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako Jarraibideak.

9.1.HIRIGINTZAKO ARDURAK, ARDURADUNAK ETA GENERO IKUSPEGIA

Zaldibiako Udaleko hirigintza sailean hiru langile daude²². Ondorengoak dira haien funtzioak:

- **Udal-arkitekto teknikoa:** Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak Saileko teknikaria da.

- **Hirigintza-teknikaria:** ingurumen-arloaren eta jarduera-espedienteen arduraduna da. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak arloan, elkarlanean dihardu arkitekto teknikoarekin.

Bi teknikariei dagokie Hirigintza-arloko Planeamendu, Gestio eta Diziiplina espedientei buruzko txostenak egitea, eta euren ardurapean daude jardura-espedienteak eta obra txiki eta handietarako eskaerak. Era berean, obra eta zerbitzuetako arduradunei dagozkien lanak koordinatu eta kontrolatzen dituzte.

- **Departamentuko administraria:** jendaurreko harreraz arduratzen da. Administrariak Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen alorrean herritarrak izan ditzakeen arazo eta zalantzak jasotzen ditu.

Bestalde, zerbitzu publikoetako langileen funtzioak ondorengoetan zehazten dira:

- **Zerbitziburua:** eraikin publikoen mantentze-lanen, herriko argi-sarearen eta kale-garbiketaren arduraduna da.

- **Obra eta Zerbitzuetako brigada:** hiru langilek osatzen dute,

bi peoi-lurperatzailek eta peoi batek. Obra eta Zerbitzuetako arduradunen ardurapean, agindutako lanak egiten dituzte.

Zaldibian hirigintza alorrean egiten den lanaren berri sakonean izan asmoz udal arkitekturekin egon ginen. Udalerri txikiek ezin diote lanaldi osoan arkitekto bat izateak dakarren gastuari aurre egin, beraz, arkitektoa astean behin joaten da. Bere funtzio nagusia aholkularitzarena da. Dena den, behar izan ezkerro (obra bat martxan denean esate baterako) maizago joaten da herrira.

Herrian obra berri bat egin behar denean obra hori egiteko proiektuak eskatzen dira. Proiektuak iristen direnean hauen balorazioa egiten da. Balorazio bilera hauetan, arkitektoak berak, alkateak, saileko idazkariak eta obra bideratua dagoen saileko zinegotziak hartzen dute parte. Hau da, obrak hezkuntzarekin zerikusia badu ba hezkuntzaz arduratzen den zinegotziak ere parte hartzen du balorazio bileran.

Proiektuak baloratzeko hainbat irizpide izaten dituzte kontutan: kostua, materialen kalitatea, denborak, garantiak, mantenimenturako proposamenak, baldintza-agiriarekiko egokitasuna, eta abar.

Egun bi obra nagusi daude martxan: haurreskolarako haur parkea eta Beti Gazte jubilatuen elkartearen berritze plana. Proiektu hauek garatzerakoan alderdi sozialei (hauen artean generoari) arretarik jartzen ote zaien galde-tuta, proiektuen hasieran beharren azterketa bat egiten dela aipatzen du arkitektoak, eraiki behar denaren erabiltzaile potentzian beharren inguruko hausnarketa egiten saitzen dira. Beharren azterketa hau ez da nahi bezain sakona izaten, lehen hurbilpen gisa funtzionatzen du.

²² Zaldibiako web-gunea.

Udal arkitektoa²³: *Adibidez, parkeen kasuan beharren azterketa bat egin da. Beharren azterketa beti egiten da. Ez da agian gustatuko litzaiguen bezain sakon egiten baina egin-egiten da. Adibidez, hiru parket egin dira. Bata pribatua, plazan haurrentzako egin da eta amaitzeko hirugarren adinekoentzako osasun-zirkuitua egin dugu. Honetarako herriko medikuarekin jarri gara harremanetan, bera, ariketak egiteko makina egokienak gomendatu dizkigu. Beti izaten da kontuan zeintzako den egin behar den hori eta zeintzuk diren haien beharrak.*

Arkitektoaren aipamenean irakur litekeen moduan, hainbat kasutan “adituekin” ere egiten dute kontsulta. 3. adinekoentzako parkean, esate baterako, hainbat ariketa egiteko makinak planteatu zirenez, herriko medikua-
ren gomenduak jarraitu zituzten hauek akeratzeko. Gauza bera gertatzen da Haurreskolarako parkearekin, kasu honetan Haurreskolako arduradunak izan dira interlokutorekik garrantzitsuenetarikoa, izan ere, hauek baitira haurren beharrak bertatik-bertara ezagutzen dituztenak.

Proposamenak landu ostean, hirigintza batzordean aurkezten dira, arkitektoarena aburuz prozesak oso partehartzaileak dira. Dena den, proiektuaren nolakotasunaren arabera, parte hartze maila aldakorra izan liteke, kasu batzuetan baldintzak-agiriak (pliegoak) oso zorrotzak izaten dira eta proiektuek moldagarritasun gutxi izaten dute, beste batzuetan askoz irekiagoak dira eta herritarren ekarpenak jasotzeko aukera gehiago dago.

Aipatu den gisan, arkitektuaren iritziz aldagai sozialak nahiko kontuan izaten dituzte herri mailan abian jartzen dituzten proiektuetan. Genero ikuspegia txertazeaz hitz egiterakoan, hasiera batean ez zuen oso argi zertaz ari ginen:

Arkitektoa²⁴: *Uste dut guztiok batera bizi garela eta ez direla gizon eta emakumeentzat gauza berezituak egin behar.*

Genero ikuspegia txertatzeko oinarritzko azalpenak eman ostean, berehala ikusi zuen honen erabilgarritasuna. Azaldu zitzaion, hirigintza genero ikuspuntutik aztertzeaz hitz egiten denean, emakumeei esleitutako rol sozialek

(batez ere zaintzarekin harremandutakoek) hauek espazioak bizi eta erabiltzeko dituzten moduak baldintzatzen dituztela, eta hau oso kontuan izan behar dela guztientzako hirigintza eredu bat planteatu nahi bada.

Arkitektoa²⁵: *Emakumea bada haurrak eskolara eramten dituen, erosketa egiten duena, eta abar. ba ezberdin bizi du, adibidez, irisgarritasunarena. Oso ezeberdin. “Emakuemen ikuspegi” hori oso ondo dator.*

Arkitektoa²⁶: *Emakumeak topatzeko espazioak, ni ez naiz parkeetan gehiegi ibiltzen, baina eserlekuak jarri behar badituzu ideia ona da U forman jartzea eta hurrei begira.*

Dena den, bai arkitektoaren eta baita hirigintzan lan egiten duten gainontzeko langileen ardurak ikusita, beraien lanean generoaren gaia lantzeko oinarritzko izango litzateke formakuntza egoki bat eskaintzea, sarri ez baitakite zer nolako gauzak egin daitezkeen hirigintzatik, ez eta zer nolako eragina duten beraiek burutzen dituzten eskuhartzeak.

Hirigintzaren generoaren arabera azterketa bat egiterakoan hainbat alderdi izan beharko lirateke kontuan: Irisgarritasuna, Segurtasuna, Zerbitzuen Kokapena, Mugikortasuna eta Adierazpide sinbolikoa. Zaldibian ez da alderdi hauek kontutan izaten dituen azterketa edo diagnosirik egin. Dena den, arkitektoarekin izandako elkarrizketatin esparru bakoitzaren inguruko lehen gogoeta batzuk jaso litezke:

²³ Jatorrizko gaztelaniazkoetik itzulia.

²⁴ Jatorrizko gaztelaniazkoetik itzulia.

²⁵ Ibid.

²⁶ Ibid.

9.2. ZALDIBIA ETA IRISGARritasuna

Irisgarritasuna oinarritzko puntua da hirigintzan. Hiri edo herriak herritar guztientzako irisgarriak izan beharko lukete (azera egokiekin, beharrezko ranpekin, etab.). Arkitektoaren arabera, irisgarritasunaren gaia ondo lantzen da Zaldibian, legeak berak zehazten baititu honetarako irizpideak. Dena den, interesgarria izango litzateke Zaldibian irisgarritasunaren inguruko diagnostiko bat egitea herriko emakumeekin. Hauek betetzen dituzten rolak ikusirik (haurrak garraiatu, 3. adineko pertsonak zaindu eta abar.) sarritan haur karroekin eta gurpildun ahulkiekin mugitzen baitira eta heuren eguneroko esperientzietik ikus bailiteke gai honetan zer hobekuntza egin litekeen.

9.3. ZALDIBIA ETA ZERBITZUAK

Herri baten bizi kalitatea oso lotuta dago herrian dauden zerbitzuekin eta hauen kokapenarekin (anbulategia, kirol instalakuntzak, ikastetxeak, dendak, etab.). Kalitatezkoak diren zerbitzuak eskura izatea ezinbestekoa da eguneroko bizitzarako. Zaldibin, momentuz ez da honen inguruko gogoe-tarik egin.

9.4. ZALDIBIA ETA MUGIKORTASUNA

Emakumeek dituzten mugikortasun beharrak aztertu beharko lirateke, egungo azpiegiturek (garraio zerbitzuek, ibilbideek, ordutegiek, prezioek, etab abar.) emakumeen mugikortasuna erraztu edo oztopatzen duten ikusiz. Zaldibiaren kasuan, autobus zerbitzuaren deskribapena egiten den arren, erabiltzaileen asetasun mailaren inguruko diagnostikorik ez denez egin, ezinezkoa da zerbitzu hauek herritarren beharrak asetzen dituzten jakitea.


9.4.1. Autobus zerbitzuak

Bi autobus zerbitzu daude Zaldibian. Egunerokoa Zaldibia-Zegama / Zegama-Zaldibia ibilbidea duena eta larunbat gauetako gau zerbitzu berezia Ataun-Zaldibia / Zaldibia-Ataun ibilbidea egiten duena.

L1 Zaldibia-Zegama / Zegama-Zaldibia							LANEGUNAK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA LUNDIALES DE LUNES A VIERNES						
Zaldibia	Ordizia	Beasain	Iurre	Idiazabal	Segura	Zegama	Zegama	Segura	Idiazabal	Iurre	Beasain	Ordizia	Zaldibia
07:20	07:25	07:30	07:35	07:45	07:40	07:45	06:40	06:45	06:55	07:00	07:05	07:10	07:15
08:45	08:50	08:55	09:00	09:10	09:20	09:30	07:55	08:00	08:10	08:15	08:20	08:25	08:35
09:15	09:20	09:25	09:30	09:40	09:50	10:00	09:30	09:35	09:45	09:50	09:55	10:05	10:15
11:00	11:05	11:10	11:15	11:25	11:35	11:45	11:00	11:05	11:15	11:20	11:25	11:35	11:45
12:00	12:05	12:10	12:15	12:25	12:35	12:45	12:00	12:05	12:15	12:20	12:25	12:35	12:45
13:15	13:20	13:25	13:30	13:40	13:50	14:00	12:45	12:50	13:00	13:05	13:10	13:15	13:25
15:00	15:05	15:10	15:15	15:25	15:35	15:45	14:00	14:05	14:10	14:15	14:20	14:30	14:40
16:00	16:05	16:10	16:15	16:25	16:35	16:45	15:00	15:05	15:15	15:20	15:25	15:35	15:45
17:00	17:05	17:10	17:15	17:25	17:35	17:45	16:00	16:05	16:15	16:20	16:25	16:35	16:45
18:00	18:05	18:10	18:15	18:25	18:35	18:45	17:00	17:05	17:15	17:20	17:25	17:35	17:45
19:00	19:05	19:10	19:15	19:25	19:35	19:45	18:00	18:05	18:15	18:20	18:25	18:35	18:45
20:00	20:05	20:10	20:15	20:25	20:35	20:45	19:00	19:05	19:15	19:20	19:25	19:35	19:45
21:20	21:25	21:30	21:35	21:45	21:55	22:05	20:00	20:05	20:15	20:20	20:25	20:35	20:45
							20:45	20:50	21:00	21:05	21:10	21:20	21:30
									22:00	22:05	22:10	22:20	22:30

LARUNBATA SABADOA							LARUNBATA SABADOA						
Zaldibia	Ordizia	Beasain	Iurre	Idiazabal	Segura	Zegama	Zegama	Segura	Idiazabal	Iurre	Beasain	Ordizia	Zaldibia
08:10	08:15	08:20	08:25	08:35	08:45	08:55	07:40	07:45	07:50	07:55	08:00	08:05	08:15
11:15	11:20	11:25	11:30	11:40	11:50	12:00	10:30	10:35	10:40	10:45	10:50	10:55	11:05
12:15	12:20	12:25	12:30	12:40	12:50	13:00	11:45	11:50	11:55	12:00	12:05	12:10	12:20
13:20	13:25	13:30	13:40	13:50	14:00	14:10	12:45	12:50	12:55	13:00	13:05	13:10	13:20
14:30	14:35	14:40	14:50	15:00	15:10	15:20	14:00	14:05	14:10	14:15	14:20	14:25	14:35
17:00	17:05	17:10	17:15	17:25	17:35	17:45	14:45	14:50	15:00	15:05	15:10	15:15	15:25
18:30	18:35	18:40	18:45	18:55	19:05	19:15	17:45	17:50	18:00	18:05	18:10	18:15	18:25
19:30	19:35	19:40	19:45	19:55	20:05	20:15	19:00	19:05	19:10	19:15	19:20	19:25	19:35
21:15	21:20	21:25	21:30	21:40	21:50	22:00	20:00	20:05	20:10	20:15	20:20	20:25	20:35
							22:00	22:05	22:10	22:15	22:20	22:25	22:35

KIANDE ETA JAIEKINAK DOMINGOS Y FESTIVOS							KIANDE ETA JAIEKINAK DOMINGOS Y FESTIVOS						
Zaldibia	Ordizia	Beasain	Iurre	Idiazabal	Segura	Zegama	Zegama	Segura	Idiazabal	Iurre	Beasain	Ordizia	Zaldibia
07:30	07:35	07:40	07:45	07:55	08:05	08:15	09:45	09:50	10:00	10:05	10:10	10:15	10:25
09:00	09:05	09:10	09:15	09:25	09:35	09:45	11:00	11:05	11:10	11:15	11:20	11:25	11:35
10:30	10:35	10:40	10:45	10:55	11:05	11:15	12:00	12:05	12:10	12:15	12:20	12:25	12:35
13:20	13:25	13:30	13:40	13:50	14:00	14:10	14:00	14:05	14:10	14:15	14:20	14:25	14:35
16:45	16:50	16:55	17:05	17:15	17:25	17:35	16:00	16:05	16:10	16:15	16:20	16:25	16:35
17:30	17:35	17:40	17:45	17:55	18:05	18:15	18:15	18:20	18:25	18:30	18:35	18:40	18:50
19:05	19:10	19:15	19:25	19:35	19:45	19:55	19:45	19:50	19:55	20:00	20:05	20:10	20:20
20:30	20:35	20:40	20:45	20:55	21:05	21:15	22:00	22:05	22:10	22:15	22:20	22:25	22:35
21:25	21:30	21:35	21:45	21:55	22:05	22:15							
22:10	22:15	22:20	22:25	22:35	22:45	22:50							



9.5. ZALDIBIA ETA SEGURTASUNA

Bestetik, emakumeen segurtasuna arriskuan jartzen duten alderdiak identifikatu beharko lirateke, badaude hainbat toki, egoera, momentu, emakumeak arriskuan sentitzen direnak. Segurtasunaren gaia bere lanean oso kontuan hartzen duela aipatzen du arkitektoak.

Arkitektoa²⁷: Segurtasun irizpideak beti izaten dira kontutan. Adibidez, tunel bat egitea planteatzen bada, segurtasuna beti izaten da kontutan, tunelaren zabalera, argiztatzea, barne diseinua, eta. Kontutan izan behar da pasaleku bat dela eta beldurra eman dezakeela. Pleguetan jasotzen diren baldintzak dira. Kale estuak, zikinak eta abar. ekiditea guztieontza herri bat diseinatzea da.

9.6. ZALDIBIA ETA ADIERAZPIDE SINBOLIKOA

Oso hiri edo herri gutxitan jasotzen dira emakumeen ekarpenak eta memoria historikoa. Gizonezko idazle, politikari, artista eta abar gogoratzen dira kale-izen, monumentu edo plazetan, eta bitartean, emakumeen ekarpenak (bai indibidualak baita kolektiboak ere) ez dira errekonozitzen.

Zaldibiaren kasuan hiru kale daude: Santa Fe, Lizardi eta Artxanberri. Auzoak berriz Egileor eta Urtesabel izendapena dute. Udal arkitektoarekin egindako elkarrizketan argitu zuen jada planteatu dutela kale berriren bat duten hurrengoan emakumezkoen ekarpena jasotzen duen izena aukeratu delako (emakume konkretu baten izena, emakumeek eginiko lan baten izena, etab.).

Arkitektoa²⁸: Emakumeek kalea hartu behar dute, ikusi egin behar dira gure kaleetan.

²⁷ Ibid.

²⁸ Jatorrizko gaztelaniakotik itzulia.

9.7. LABURBILDUZ

- Zaldibian, Hirigintzari dagokionez, generoa ez da lehentasun bat izan.
- Hirigintzako proiektuetan, ahal den neurrian, alderdi sozialak kontutan izateko saiakera egiten da.
- Ez da inoiz hirigintza genero ikuspuntutik aztertzen duen ikerketa edo proiekturik martxan jarri.

INDARGUNEAK

Arkitektuak oso jarrera baikorra du herri proiektuetan genero ikuspegia lantzeko.

Modu sistematikoan ez bada ere irisgarritasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten hainbat alderdi lantzen dira.

Hirigintza batzordea dago herritarrentzako parte hartze mekanismo gisa.

AHULTASUNAK

Hirigintza langileek ez dute genero gaietan formakuntzarik.

PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA

Auzo, herri eta lurraldeetako bizitza politiko eta sozialean parte-hartzea ezinbestekoa da gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako. Parte-hartze honek botere eta baliabidetarako sarbidea ahalbidetzen du, eta zalantzarik gabe, egun gelditzen den erronka nagusienetarikoa da.


10.1. PARTAIDETZA

10.1.1. Udal antolamendua: Korporazioa eta udal batzordak

Gobernu arloek osatzen dute oinarrizko udal egitura. Udal egituraketaren organo nagusia alkatetza eta gobernu bilkura dira. Jarraian datorren taulan Udaleko ordezkari politikoak sexuaren arabera sailkatuta dira.

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BILDU	1	6	7
ZALDIBIA HERRIGINTZA	1	1	2
GUZTIRA	2	7	9

Taula 44: Zaldibiako Udaleko ordezkari politikoak, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.




Grafikoa 12: Zaldibiako Udal ordezkariak sexuaren arabera. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea Farapi S.L.

Taulan ikusten den lez, zenbaki orokorretan guztira 9 ordezkari daude, hauetatik 2 emakumezkoak eta 7 gizonezkoak, beraz, azken hauek emakumezkoekin konparatuz hirukoitza baina gehiago direla esan dezakegu. Zazpi ordezkariarekin (sei gizon eta emakume bat), Bildu da alderdi nagusia, Zaldibia Herrigintzak bestalde, bi ordezkari ditu (gizon bat eta emakume bat).

6 Batzordek osatzen dute Zaldibiako Udala. Ondorengo da Batzorde bakoitzaren osaera sexuaren arabera.

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
Hirigintza	2	8	10
Zerbitzuak, Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna	5	3	8
Ingurumena, Mendaria eta Lehen sektorea	1	9	10
Kultura, Gazteria, Kirola eta Euskera	4	6	10
Partehartzea	5	10	15
Kontuetarako Batzorde Berezia	-	3	3
GUZTIRA	15	41	56

Taula 45: Zaldibiako udal batzordeetako partaideak sexuaren arabera, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.



Grafikoa 13: Udal Batzordeetako ordezkariak sexuaren arabera, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.

Zaldibiako udalean 6 batzorde daude, eta guztira 56 pertsonak hartzen dute parte batzordeetan, hauetatik 41 gizonezkoak dira eta 15 emakumezkoak, hau da gizonezkoak ia hirukoitza dira.

Batzordekako azterketa bat egiten bada, batzorde bakarren gainentzen da emakume kopurua, Zerbitzu, Gizarte Ongizatea eta Berdintasun batzordean (5 emakume eta 3 gizon). Ohikoa izaten da gizarte ongizatearekin zerikusia duten batzordeetan emakume kopurua handiago izatea gainontzeko batzordeetan baino, honek emakumeen historiko izan dituzten rolerkin du zerikusia (besteen ongizatearekiko ardura).

Bestalde, Hirigintza batzordean eta Ingurumen, Medi eta Lehen Sektoreko Batzordean, gizonak dira nagusi. Hirigintzan (2 emakume eta 8 gizon) eta aipatutako beste batzordean (emakume bat eta 9 gizon). Batzordekako ordezkariak hain gizarte errealitatearen isla bat da, izan ere, bi sektore hauek nahiko maskulinizatuak dira, eta emakumeak egon badauden arren, oso inbisibilizatuak daude.

Parte hartzeri dagokionez bi datu aipatu daitezke:

- Gizonen kopuruak ia hirukoiztu egiten duela emakumeena.
- Sexu rol tradizionalak birsortzen dira.

Bi datu hauen inguruko gogoeta egin beharko litzateke: Zergatik da baxua-goa emakumeen partehartzea? Esparru pribatuen (etxean) ardurak nagusiki emakumeen esku egoteak baldintzatzen al du hauen partehartzea? Eta parte hartzen dutenean zergatik egiten dute tradizionalki “emakumezkoenak” diren gaitan (zaintza, eta abar.)?

Azpinarratu beharko litzateke Parte hartze prozesuetan genero begirada txertatzeko lanak eta gidak burutu direla, hala nola, Lehenengo pausoak genero-ikuspegia tokiko Agenda21 prozesuetan txertatzeko, jarraibide metodologikoak²⁹.

Bukatzeko, aipatu behar da mekanismo guztietan emakumeen partehartzea zaintzeko zein bide erabiltzen diren aztertu beharko litzatekeela.

10.1.2. Udal antolamendua: udal langileak

Batzordeen azterketa alde batetara utziz, jarraian datorren taulan Zaldibiako udaletxeko langileak agertzen dira sexua eta karguaren arabera sailkatuta. Ikusi daiteken lez, gehiengo emakumezkoak dira, hain zuzen ere 10 emakume eta 4 gizon.

Kasu honetan ere nahiko nabarmena da sexuen araberrako funtzio banaketa.

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
Harrerako administraria	1	
Administrari laguntzailea	1	
Gizarte langilea	1	
Gizarte langilearen administrari laguntzailea	1	
Kultur dinamizatzailea	1	
Kultur dinamizatzailearen laguntzailea		1
Arkitektoa		1
Kontuhartzailea	1	
Alguazila		1
Mantenimendua		1
Kaleko Brigada	2	
Etkez-etxeko laguntzaileak	2	
GUZTIRA	10	4

Taula 46: Zaldibiako udaleko arlo bakoitzeko langileak, 2011. Iturria: Zaldibiako Udala. Egilea: Farapi S.L.

²⁹ http://www.ihobe.net/Pags/AP/AP_Noticias/hemeroteca.asp?cod=12856D30-97AF-42A4-98C6-4F63493471F3&hId=CE6200AC-10B7-484C-AA5A-CD831A67C8E2&hIdIdioma=E

10.2. PARTAIDETZA SOZIO-KULTURALA: ELKARTEAK

Atal honen hasieran aipatu den moduan partehartze soziala aztertzeke ezinbestekoa da herriko elkarteak kontutan izatea. Zaldibian hamaika mugimendu eta talde daude eta herri mailan jende dezente mugitzen dute.

Diagnostiko honetan parte hartzeko deia egin zitzaienean elkarten aldetik oso erantzun ona jaso zen. Gaiarekiko kezka eta interesa agertu zuten eta hau, bere horretan, abiapuntu ona dela uste da. Ondorengo taulan jasotzen da elkareekin egindako eztabaida taldean parte hartu zutenen zerrenda.

Zaldibiko Areto Futbol Taldea	Ordezkar bat (gizon bat)
Ardiki Kultur Elkartea	Ordezkar bat (gizon bat)
Ezker Abertzalea	Ordezkar bat (gizon bat)
Damixelak	Ordezkar bat (emakume bat)
Gaztetxea	Lau ordezkari (4 emakume)
Beti Gazte Elkartea	9 ordezkari (8 emakume eta gizon bat)
Gailurrerantz Mendi Elkartea	Bi ordezkari (bi gizon)
Guraso Elkartea	Ordezkar bat (emakume bat)

Taula 47: Elkareekin egindako eztabaida taldean parte hartu zutenen zerrenda.
Egilea: Farapi S.L.


Eztabaida taldean egon ziren elkarte eta taldeez gain, ondorengoak daude herrian:

- Iztueta Dantza Taldea
- Goiztiri Txaranga
- Zaldibia Aralar Pottoka elkarte
- Amitza Segar Elkartea
- Parroki Elkartea
- Ehiza eta Arrantza Elkartea
- Zubi-buru elkarte
- Gaztelu Elkartea
- Iztueta Fundazioa
- Odol Emaileen elkarte
- Goierriko Sahararen Lagunak Algamar Elkartea

10.2.1. Elkarteak eta generoa

ELKARTE MOTAK	KOPURUA
Elkarte sozio kulturalak	9
Kirol arlokoak	5
Talde erlijiosoak	1
Elkarte gastronomikoak	2
Animali elkarteak	2
Ezin egokitu	1
GUZTIRA	20

Taula 48: Zaldibiako herritarrei edo publikoari begira jarduerak antolatzen dituzten elkarte, talde eta erakundeak. Iturria: Zaldibiako Kultura Saila. Egilea: Farapi S.L.



Grafikoa 14: Zaldibiako herritarrei edo publikoari begira jarduerak antolatzen dituzten elkarte, talde eta erakundeak. Iturria: Zaldibiako Kultura Saila. Egilea: Farapi S.L.

Ikus liteen moduan elkarte ugari daude Zaldibian, ezinezkoa izan da elkarte guzti hauetan berdintasunaren gaiak duen presentzia edo garrantzia aztertzea, baina eztabaida taldean parte hartu zutenekin gaira lehen hurbilpen bat egiteko parada izan zen, hauek labur-labur aipatu daitezkeen alderdiak:

Zaldibiako Areto Futbol Taldea: Bilerara ordezkari bat etorri zen, gizon-nezkoa. Momentu honetan taldean denak gizon-nezkoak direla aipatu zuen. Nesken areto futbol taldea desagertu zenetik ez dago neskarik taldean. Nesken taldea berriro sortzeko nahia agertu zuen. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaz ez dute elkarte bezala gogoeta gehiegirik egin, baina jarrera positiboa zuen gai lantzeko.

Ardiki Kultur Elkarteak: Ordezkarik gisa gizon bat etorri zen. Beraien egiteko nagusia Ardiki Eguna antolatu eta ospatzea da. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaz ez dute elkarte bezala gogoeta egin.

Ezker Abertzalea: Ordezkarik bat, gizon-nezko bat etorri zen. Ezker Abertzalearen kezken artean kokatzen du berdintasunarena, baina inoiz ez zaio lehentasunik eman. Taldea dinamizatzen dihardutenak gizon-nezkoak dira nagusiki. Aipatzen du hauteskundeetarako zerrendak osatzeko emakumeak topatzea zaila egiten zaiela, ziurrenik bateragarritasun arazoak bide. Oro har, politikaren mundua nahiko maskulinizatua dela irizten du.

Damixelak: Damixelak deitzen da Zaldibiako emakume elkarteak, elkartetik ordezkari bat etorri zen bilerara. Urtetan jardun dute emakumeen aldeko jardura eta aldarrikapenak egiten, batez ere Martxoaren 8aren bueltan. Momentu honetan taldea kili-kolo dabil, taldearen ardura hartuko duten neska gazteen bila dabilta eta helburu honekin hainbat bilera egin dituzte herriko neska gazteekin, batez ere Gazte Asanbladaren bueltan mugitzen direnekin.

Gaztetxea: Gaztetxetik lau ordezkari etorri ziren, laurak emakumeak. Gaztetxean antolatutako ekintzen berri eman zuten: kontzertuak (5-6 urtean), 2 herri afari, gazte festak... Momentu honetan Gaztetxearen dinamika man-

tentzeaz neskak arduratzen direla aipatu zuten, dena den, belaunaldiaren arabera hau aldakorra dela esan zuten. Kontzertuak antolatzerakoan, musikarien sexua ez da kontutan izaten, “modak” gehiago agintzen du. Kontzertu proposamenak asanbladan egiten dira. Beste ekintzetan sexuen parte hartze eta presentzia orekatua mantentzen saiatzen dira. Aipatzekoa da Gaztetxea mugitzen diren nesken artean batzuk Hezkidetza ikastaroa dutela egina eta hau oso baliagarria izan zaiela gaia gaztetxean lantzerako orduan.

Beti Gazte Elkarte: Herriko jubilatuen elkarte da, bilerara 9 pertsona etorri ziren, 8 emakume eta gizon bat. Momentu honetan, Udalarekin elkarlanean, elkartearen dinamika (zuzendaritza, lokala, etab.) birplanteatzen eta berrindartzen ari dira. Jende berri asko sartu da eta “kokatzen” ari dira. Berdintasunaren gaia ez dute landu momentuz, baina jarrera baikorra agertu dute.

Gailurrerantz Mendi Elkarte: Zuzendaritzako bi kide etorri ziren, biak mutilak. Momentu honetan zuzendaritzan dauden guztiak gizonezkoak dira. Elkartearen helburua mendi irteerak eta ibilaldiak antolatzea da, ibilaldi hauek herritar guztientzako irekiak dira eta parte hartzaileen profila irteerak duen zailtasunaren arabera aldatzen da. Emakume dezentek hartzen du parte haiek antolatutako ekintzetan. Berdintasunaren gaia ez dute landu momentuz baina jarrera baikorra agertu dute.

Guraso Elkarte: Ordezkarik bat etorri zen, emakumea. Orokorrean guraso elkarte gehien bat amak mugitzen direla aipatu zuen, aiten presentzia minoritarioa dela. Amek haurren zaintza beste modu batean bizi duela uste du eta horregatik gehiago inplikatzeko direla guraso elkartearen dinamikan. Guraso elkarte ez dute berdintasunaren inguruko gogoetarik egin momentuz.

Damixelak taldea alde batera utziz, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna ez da sartzen elkarte hauen helburuen artean. Dena den, beraien eguneroko funtzionamenduan zeharka landu dezaketen gaia da ondorengo puntuak kontutan izanik:

- **Partehartzea:** Elkartearen parte hartzea gizon eta emakumeentzat erakargarria izan litekeela bermatu. Gizonak eta emakumeak gonbidatzeko saiakera egin.

- **Antolakuntza eta erabaki hartzea:** Gizon eta emakumeen partehartze parekidea bilatu.

- **Edukia:** Genero ikuspegia txertatu elkartetik lantzen diren gaietan.

10.3. LABURBILDUZ

- Udal gobernu taldean ez da parekidetasuna bermatzen.
- Udal langileen artean lanbideak sexuen araberako rolak birsortzen dituzte.
- Herrian dagoen emakume elkarte bakarra, Damixelak, kili-kolo dabil.
- Herriko elkarteek jarrera ona dute berdintasunaren gaia lantzeko, baina momentuz ez dute honen inguruan inolako ekintzarik, formakuntzarik eta abar egin.

INDARGUNEAK

Zaldibiko udalak herritarren partehartzea bultzatzeko batzorde irekien bidez funtzionatzen duenez, emakumeen partehartzea sustatzeko espazio garrantziatsua izan lezake.

Herriko elkarteek gaiarekiko interesa azaldu zuten.

AHULTASUNAK

Emakumeen partehartze sozio-politiko indartzeko ibilbide orri bat falta da.

Elkarteek aholkularitza bat beharko lukete heuren dinamikan genero ikuspegia txertatzeko.

ONDORIOAK

Diagnostikoari amaiera emateko aztertutako guztiarekin eta *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren* egitura jarraituko da.

11.1 MAINSTREAMING ETA GOVERNANTZA

Botere publikoetatik abian jartzen diren politika eta ekintzetan genero ikuspegia txertatzea Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (4/2005 Legea, Otsailaren 18koa) oinarritzko printzipioetariko bat da. Izan ere, udal-erri batek emakume eta gizonen aukera berdintasunean aurrea egin nahi badu ezinbestekoa da bide horretan udal sail guztien konpromezua eta inplikazioa lortzea.

Zaldibian

Udal sailetan ez dira datuak sexuaren arabera bananduta jasotzen.

Sexuaren arabera bananduta topatu diren datu apurretan ez dago sexua beste aldagai batzuekin (adina, jatorria, eta abar.) gurutzatzeko aukerarik.

Udal teknikarien artean bik besterik ez dute generoaren inguruko formakuntza.

ONDORIOZ

Hutsune guzti hauek ikusirik, egun ez dago Udalaren eginkizunetan genero ikuspegia txertatzeko baliabiderik.

11.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikulua jasotzen duen moduan “Euskal herri-aginteei neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne”.

Zaldibian

Udal sail batzuetatik (kultura, kirola, eta abar.) ahaleginak egin dira emakumeen presentzia eta hauek gizarteari eginiko ekarpenak agerian uzteko.

Elkarteek herriko dinamikan duten pisua ikusirik, hauek emakumeen ekarpenak bisibiltzatzeko lanean inplikatu beharko lirateke.

Udaletik abian jartzen diren partehartze prozesuetan -udal batzorde guztiak irekiak dira- ez da kontutan hartzen genero ikuspegia.

Emakumearen gaiaren inguruan, momentuz, ekintza puntualak soilik egiten dira.

ONDORIOZ

Udaletik, emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, estrategia orokor bat falta da.

11.3. ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 47. artikulua jasotzen duen moduan, “Euskal Herri-administrazioek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dute. Horretarako, honako alderdiak sustatuko dituzte: etxeko lanetan gizonak erantzunkidetasuna edukitzea; enpleguaren egiturak bizitza personalaren eta familiarraren beharrei egokitzea; zerbitzu soziosanitarioak sortzea eta egokitzea; laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak eratzea; eta delako helbururako egoki irizitako beste edozien neurri”.

Zaldibian

Lan erreproduktiboak oraindik ere emakumeen ardura dira.

Zaintza lanari balioa eman eta erantzunkidetasuna bultzatzeko ez da inolako jarduerak abian jarri.

Udal sailetatik proposatzen diren jardueretan ez da bateragarritasunerako ordutegi eta baliabide erraztasunik eskaintzen.

Ez dago Hirigintzari eta garrio azpiegiturei buruzko datu nahikorik hauek bateragarritasuna errazten edo oztopatzen duten jakiteko.

Herriko Elkarteek ez dute erantzunkidetasunaren inguruko inolako gogoetarik egin.

ONDORIOZ

Bateragarritasuna oraindik ere norbanakoen edo familien ardura gisa ulertzen da eta udala ez da inplikatu honi dagozkion arazoetan.

11.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

EAEn Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legearen arabera, (VI. kapitulua, 50. artikulua) emakumeen aurkako indarkeria hau da: “Lege honen ondorioetarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”. Berdintasunari buruzko Legeak esku hartzeko bide bi ezartzen ditu: bata ikerkuntza, prebentzio eta prestakuntzari buruzkoa; eta bestea, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak babesteko.

Zaldibian

Emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko eguna ospatzen da.

Ongintzan indarkeria jasan duten emakumeentzako hainbat zerbitzu eskaintzen dira.

Ez dago udal mailako indarkeria protokolorik. Egun modu informalean egiten da koordinazioa.

Ez da indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa era sistematikoan egiten.

ONDORIOZ

Indarkeria jasan duten emakumeei hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkien arren (laguntza psikologikoa, adibidez), zerbitzu aldetik (laguntza juridikoa eten egin da, ez dago gertuan harrera pisurik eta abar.) eta prebentzio mailan lan asko geratzen da egiteko.

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Kontsultatutako barne dokumentazioa.	11
Taula 2: Elkarriketatuen zerrenda.	11
Taula 3: Udal ordezkariekin bilera.	12
Taula 4: Elkarreetako ordezkariekin lan bilera.	12
Taula 5: Zaldibia populaketaren garapen historikoa sexuaren arabera 2000, 2005 eta 2011.	15
Taula 6: Zaldibiako biztanleria sexuaren arabera 2011.	15
Taula 7: Zaldibiako Biztanleriaren piramide 2010.	17
Taula 8: Atzerrian jaioetako pertsonak, Zaldibian erroldatuak, 2010.	18
Taula 9: Zaldibian erroldatutako atzerrian jaioetako gizon-emakumeak jaioeterraren arabera.	18
Taula 10: Zaldibiako inmigrazioa bertako populaketaren arabera, 2010.	19
Taula 11: Kanpoan jaioetakoak, Zaldibin Erroldatuak, 2011.	19
Taula 12: Atzerrian jaioetako emakumeak; Zaldibian erroldatuak 2010.	20
Taula 13: Kanpoan jaioetako emakumeak eta Zaldibian jaioetakoak, 2010.	21
Taula 14: Biztanleria aktiboaren zenbatespena 2010erako.	23
Taula 15: Langabezia eskatzaileak Zaldibian 2011ko Irailean.	23
Taula 16: Langabezi erregistratua Zaldibian, sexu eta adinaren arabera, 2011ko urrian.	24
Taula 17: Gipuzkoako langabezi datuak, 2011.	24
Taula 18: Oianguren institutuko matrikulazio datuak, 2011-2012 ikasturtea.	25
Taula 19: Goierri Eskolako matrikulazio datuak, 2011-2012 ikasturtea.	25
Taula 20: 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakoetan), sektorearen eta sexuaren arabera. EAEn. 2009.	26
Taula 21: Kontratu mota sektorearen arabera, Gipuzkoa, 2009ko abuztua.	26
Taula 22: Gipuzkoako afiliazio araubidea sexuen arabera, 2010.	27
Taula 23: Ekonomia murgildua EAE 2002an.	27
Taula 24: Kontratu motei buruzko informazioa.	28
Taula 25: Orduko ganantzia sexuen eta sektorearen arabera, 2009.	28

Taula 26: EAEko soldatak sexuen eta sektoren arabera, 2009.	29
Taula 27: Parte hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora etxeko lan motaren, egunaren eta sexuaren arabera EAE 2008.	30
Taula 28: 16 urteko eta gehiagoko biztanleria (milakoetan), jarduerarekiko egoeraren, adinaren eta sexuaren arabera, EAEn. 2007.	32
Taula 29: Zaldibiako haurreskola. Iturria: Haurreskolen webgunea.	37
Taula 30: Zaldibiako Gizarte Zerbitzuak, langileak sexuaren arabera, 2011.	44
Taula 31: Biztanleria pobrezia subjektiboaren egoeraren eta pertsona nagusiaren sexuaren arabera, 2006 EAEn.	44
Taula 32: Biztanleria gabezia larriko egoeraren eta pertsona nagusiaren sexuaren arabera, 2006, EAEn.	45
Taula 33: Diru laguntzak sexuaren arabera, Zaldibia 2011.	46
Taula 34: Etxez etxeko laguntza sexuaren arabera Zaldibia, 2011.	47
Taula 35: Zaharren egoitza erabiltzaileen arabera, Zaldibia 2011.	47
Taula 36: Egunko zentrua erabiltzaileen arabera, Zaldibia 2011.	48
Taula 37: Menpekotasun balorazioak sexuaren arabera, Zaldibia, 2011.	48
Taula 38: Etxeko indarkeria eta genero indarkeria: Zaldibian, 2011.	50
Taula 39: 2011/12 ikastaroetan parte hartu duten pertsonak sexuaren arabera.	60
Taula 40: Zaldibian hilabetero burutzen diren kultur ekintzak, 2011.	61
Taula 41: Zaldibiako festak, 2011.	64
Tabla 42: Zaldibiako Santa Fe jaietako programaren azterketa, 2011.	67
Taula 43: Eskola kirola sustatzeko kanpaina, 2011ko uda.	70
Taula 44: Zaldibiako Udaleko ordezkari politikoak, 2011.	83
Taula 45: Zaldibiako udal batzordeetako partaideak sexuaren arabera, 2011.	84
Taula 46: Zaldibiako udaleko arlo bakoitzeko langileak, 2011.	85
Taula 47: Elkareekin egindako eztabaida taldean parte hartu zutenen zerrenda.	86
Taula 48: Zaldibiako herritarrei edo publikoari begira jarduerak antolatzen dituzten elkarte, talde eta erakundeak.	87



Farapi S.L.
grupo Evidentis